

JARDUEREN
TXOSTENA

2021



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

COVID-A BIGARREN URTEZ

2021. urtea gorabehera eta ziurgabetasun urtea izan da, baina baita itxaropen urtea ere. COVIDa bigarren urtez gure artean izan arren, eta pandemiak eragiten jarraitu duen astinaldia gorabehera, badira era positiboan nabarmendu diren gai aipagarriak. Garrantzitsuena, itxaropenari atea letra larriz ireki ziona, txertoa izan da. Guri helarazteko izan den osasun-kudeaketa goraipagarriari eta herritarren onarpen ezin nabarmenagoari esker, aurre egin ahal izan zaio urte honi (izan dituen eragozpen guztiak gorabehera, pandemiaren ondorengo etorkizunari dagoeneko aurrez aurre begira jarri den urteari).

Hala eta guztiz ere, ez dago memoriarik, ez kudeaketa txostenik, ez publikorik, ez pribaturik, birusak gure artean bigarren urtez eragin dituen kalteetatik aldendu daitekeenik. Hala ere, nahiz eta osasun-larrialdiko testuinguru zaila izan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ahalik eta normaltasun handienaz garatu ditu bere eginkizunak, COVIDak urtean zehar izan duen eraginaren araberako testuinguru aldakor baten baitan.

2021ean nabarmen berreskuratu da irizpenak emateko jarduera; hori da Batzordearen eginkizun nagusia. Euskadiko EGABek garrantzi handiko eta eragin sozial handiko esparruetan eman zuen iritzia, hala nola Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretu Proiektuan eta Euskadiko Osasun Publikoaren Aurreproiektuan; edo Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Aurreproiektuan (kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak idatzitakoan). EAEko biztanleriaren kolektibo zabalentzat interes handikoak diren legegintza-ekimenen hiru adibide dira. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen dekretu proiektuan jasotako berrikuntzak ere badira horien adibide. Batzordeak 2021eko maiatzean eman zuen proiektu horren gaineko irizpena.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Beste maila batean, lege-aurreproiektuari buruzko irizpena ere nabarmendu zen Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoa bezalako gai sentikor batean. Bertan, Batzordeak onartzen zuen erakundeen ekintza funtsezkoa dela Memoria babesteko, gertatutakoari buruzko gogoeta eginez eta belaunaldi berrientzat eskuragarri eginez, askatasunen egungo esparruko lorpenak babesteko eta lorpenaren alde borrokatu zirenen sufrimendua aitortu eta balioesteko.

Irizpen-jardueraz haratago, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urteko memoria sozioekonomikoa egiteko lege-agindua bete zuen. Memoria hori uztailean aurkeztu zen jendaurrean, eta, horrela, pandemiaren aurreko garaiak eta moduak berreskuratu ziren.

Azkenik, eta ezaugarri bikain gisa, 2021ak aukera eman du, Espainia eta Frantziako fatxada atlantikoko batzorde ekonomiko eta sozialen arteko harremanaren esparruan, pandemiaren ondorioengatik 2020an murriztutako jardueraren erritmoari berriro ekiteko. Batzorde horiek osatzen duten Sare Transnazional Atlantikoak hainbat gomendio eman ditu Atlantikoko Korridorearen ezarpena bultzatzeko, eta gomendio horiek “Espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketarantz” txostenean jaso dira. Ekarpen horrekin, Sare horretan sartutako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeek indartu egin nahi izan dute eskualdeaz gaindiko dimentsioa izanik gure lurralde bakoitzean eragin handia eta zuzena duten gaietan elkarrekin lan egiteko konpromisoa



Emilia M. Málaga Pérez

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Presidentea



ZIHURTAGIRIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegiaren 16 b) artikuluan ezarri denez, besteak beste Jardueren Urteko Memoria onesteko eginkizuna du eratzikita Osoko Bilkurak.

Arautegian ezarritakoa betez, 2021ko ekitaldiari dagokion Jardueren Memoria egin da eta, hortaz, hauxe

ZIHURTATZEN DUT

Lehenik, Euskadiko eta Ekonomia Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2021eko martxoaren 21eko ohiko atzarrean, hau erabaki zuela, besteak beste:

“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2021ko Jardueren Memoria onestea”

Bigarrenik, Batzordearen Osoko Bilkurak aipaturiko erabakian onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik dakar argitalpen honek.

Eta ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Bilbon, 2022ko martxoaren 21ean



Olatz Jaureguizar Ugarte

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen
Idazkari Nagusia

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA
ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

6

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseilueen Historia	6
Euskadiko EGAB. Sorrera eta Izaera	6
Eginkizunak	7
Osaera	8
Osoko Bilkuraren osaera	9
Organoak	10
Kontseiluaren araubide Ekonomiko-finantzarioa	11

II. KAPITULUA
JARDUEREN TXOSTENA

12

EGABen Legean ezarritako eginkizunak gauzatzea	12
Aurreko urteetako aholku-jadueraren eraginaren jarraipena	32
EAEko 2020ko Egoera sozioekonomikoari buruzko memoria	35
EGABen organoen bilerak	40
Batzorde egutegia	45

III. KAPITULUA
JARDUERA INSTITUZIONALA

47

IV. KAPITULUA
KUDEATZEKO BALIABIDEAK

56

2021 aurrekontuak	56
-------------------	----

V. KAPITULUA
KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENAK

57

Komunikazioa	58
Argitalpenak	59

ERANSKINA.
Euskadiko EGABren Araudioa

60

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO KONTSEILUEN HISTORIA

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak Lehen Mundu Gerraren amaieraren ondoko urteetan ditugu. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bureau delakoa sortu zen nazioarteko batzar gisa, eta bertan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek, parte hartzen zuten, lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria elkarrekin lantzeko xedez.

Harrezkero, ituntzeko lehen tresnak agertu ziren European, hau da, egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak. Lehen erakundea 1925ean sortu zen Frantzian, eta geroago antzeko beste batzuk agertu ziren Europako beste herrialde batzuetan, bereziki, Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak sortu zuen, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzordea. Funtsezko antzekotasunak daude horietan guztietan, beren izaerari eta eginkizunei dagokienez: organo aholku-emaileak dira, gobernuen politika ekonomikoan, gizarte- eta ekonomia-esparruetako ordezkarien parte hartzea ahalbidetzen dutenak eta, aldi berean, haien arteko elkarrizketa eta lankidetzak bideratzen dutenak.

Halaber, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak ez du jokabide pasiborik, ezpada, berezko ekimena direnak direlako gobernu eta parlamentuek kontuan izan beharko lituzketen proposamenak edo ebazpenak mahairatzeko orduan. Aholkuak emateko organoa den aldetik, autonomia eta lokabea da gobernutik eta parlamentutik, eta haren txostenak lotesleak ez badira ere, aginduzkoak dira kasu askotan. Nolanahi ere, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ematen du kontseiluak.

EGAB. SORRERA ETA IZAERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta ekonomia eta gizarte ordezkariak Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean parte hartzea du xede.

4/1984 Legearen bidez sortu zen, eta haren arauak hainbat lege aldaketa izan dituzte. Egun, hauetan ezarritakoak eraentzen du EGAB: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legea, urriaren 29ko 433/2013 Dekretua eta 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren erabakiak onetsitako Funtzionamendu Arautegia.



EGABek nortasun juridiko propioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena ez bezalako, eta ahalmen eta beregaintasun osoa du legeak eratziki dizkion eginkizunak betetzeko.

EGABren egoitza Bilbon dago, eta bertan egiten dira Kontseiluaren organoen bilkurak.

- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, hura arautzen duen legearen arabera. Aurretzako txosten horretatik daude salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege proiektuak, baita berau aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauak ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak edukiaren berri eman behar dio EGABi
- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren ustez, garrantzi berezikoak badira. Proiektu horretatik daude salbuetsita aurreko ekitaldietan onetsitakoen jarraipena dakarten dekretu proiektuak edo berrikuntza edo aldaketa nabarmenak ez dakartenak ere. Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, aukeran, gai horien inguruko txostenak eska diezazkioke kontseiluari.
- Aginduzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzak hartutako beste edozein administrazio ebazpenen inguruan, politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta badaude eta Laneko Harremanen Kontseiluari bere lege arau-emaitan dagozkion arloak alde batera utzita, betiere Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira.
- Nahitaezko txostenak ematea Eusko Jaurlaritzak politika ekonomiko eta sozialaren arloan dituen plan orokorrei buruz.
- Aurreko ataletan aipaturiko arloei buruzko proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.
- Bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak nahiz Legebiltzarrak eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, lehen bi ataletan aipaturiko arloei dagozkienak.
- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardura ekonomikoei buruz eginiko plangintzan parte hartzea.
- Urtero-urtero memoria bat egitea eta Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari helaraztea. Memoria horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko iritziak azaldu behar dira
- Bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eskatzea eta jasotzea administrazio orokorretik eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein erakundetatik.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

OSAERA

Hogeita hamabi kide osatzen dute EGAB. Honako hauek, hain zuzen:

- Zortzi kide sindikatu-erakunde eta -konfederazio nagusien ordezkartzan.
- Zortzi kide enpresa-konfederazioen ordezkartzan.
- Kide bana Euskal Autonomia Erkidegoko ondoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteen ordezkartzan:
 1. Merkataritza, industria eta itsasketa ganberak.
 2. Aurrezki kutxak eta finantza erakundeak.
 3. Kooperatibak.
 4. Lan-sozietate anonimoak.
 5. Arrantza erakundeak.
 6. Nekazaritza erakundeak.
 7. Kontsumitzaileen erakundeak.
 8. Gizarte ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak.
- Zortzi kide EGABen eginkizunei lotutako arloetan adituak.

EGABek presidentzia du. Arestian adierazitako pertsonaren bat burua ez bada, kideen kopurua hogeita hamahirukoa izango da. Kontseilukideak lau urterako izendatzen dira



2021eko Kontseiluaren osaera:

Presidentea: Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari Nagusia: Lorea Soldevilla Palazuelos

	TITULARRAK	ORDEZKOAK	
SINDIKATUEN ERAKUNDE ETA KONFEDERAZIOEN ORDEZKARITZAN	Estibaliz Montero Mendoza	Arkaitz Antizar Kerexeta	CCOO
	Arantza Martínez Tobalina	Santiago Martínez Pérez	
	Jone Robledo Zapatero	Alfonso Ríos Velada	
	Oskar Arenas Velasco	Jorge Hurtado Abrisqueta	
	Francisco Juan Osuna Matamoros	Gregorio Martín Benito	
A TALDEA	Xuria Árza Vélez	Leire Sáez Ríos	UGT
	Raúl Árza Vélez	José Luis Torrón Villanueva	
	Daniel González Taboada	Juan Carlos Cárdenas Bonelli	

ENPRESA KONFEDERAZIOEN ORDEZKARITZAN	Pablo Martín Goitia	Eduardo Arechaga Cilleruelo
	Virginia Múgica Conde	Fernando Raposo Bande
	Gonzalo Salcedo Bilbao	Silvia Ara Quincoces
	Fco. Javier Sasigain Sáez de Buruaga	Ana García Polanco
	Adolfo Rey Gómez	Ana Boto Sánchez
B TALDEA	Yoana Arambalza Zalbidea	José Miguel Ayerza Mendiburu
	Aitor Otaola Díez de Alda	Julián Ruiz Gutierrez
	Nerea Zamácola Gárate	Juan Ugarte Aguirrezabal

EAEKO SEKTORE, ERAKUNDE EDO ELKARTE BAKOITZAREN ORDEZKARITZAN	Jesús María Corres Santos	Eduardo Mozo de Rosales Fano	CÁMARAS DE COMERCIO, INDUSTRIA Y NAVEGACIÓN
	Patxi Olabarria Furundarena	Fco. Javier Sanz Santaolalla	COOPERATIVAS
	Aurelio Bilbao Barandica	Luis Francisco Marín Andrés	ORGANIZACIONES PESQUERAS
	Ana Alzaga Menaza	Jon Ariño Gallego	ORGANIZACIONES EN CONSUMIDORES
	Pedro Martínez de Alegría Pinedo	Rafael Aranguren Ilardia	CAJAS DE AHORRO Y ENTIDADES FINANCIERAS
	Olatz Jaureguizar Ugarte	Javier Muñecas Herreras	SOCIEDADES ANÓNIMAS LABORALES
	Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia	-----	ORGANIZACIONES DEL TERCER SECTOR DE LA ACCIÓN SOCIAL
Garikoitz Nazabal Etxabe	Iñigo Bilbao Rekagorri	ORGANIZACIONES AGRARIAS	

IZENDATURIKO ADITUAK	Joseba Madariaga Ibarra
	Idoia Peñacoba Etxebarria
	Aitor Alzola Martínez de Antoñana
	Arantza Estefanía Larrañaga
	Fernando Fantova Azcoaga
	Jon Barrutia Güenaga
	Itziar Alkorta Idiakez
Osane Oruetxebarria Fernández de la Peña	

D TALDEA

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ORGANOAK

OSOKO BILKURA

Presidenteak zuzentzen duen Osoko Bilkura dugu Kontseiluaren erabakiak hartu eta bere nahiak agertzeko organo gorena. Presidenteak, kontseilukideek eta Idazkari Nagusiak osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura. Osoko Bilkurak ondoko eskumenak dauzka:

- Presidentearen bete behar duen pertsona proposatzea Lehendakariari eta, Osoko Bilkuraren arlo horretako erabakirik egon ezean, kargua bete behar duen pertsonari buruzko kontsulta jasotzea Lehendakariaren eskutik.
- Kontseiluari esleituriko eginkizunak betetzean, erabaki egokiak hartzea.
- Jardunbideari buruzko barne arautegia prestatu eta onartzea, bai eta Kontseiluaren jardunbide-arautegia gara dadin beharrezkoak diren artezpideak eta jarraibideak onartzea ere.
- Lan-batzordeak sortzea eta desegitea, haien eskumenak eta jardunbide-arautegia zehaztea .
- Kontseiluaren aurrekontua onestea.
- Kontseiluaren langileria onestea, aurrekontuan sartzeko.
- Bateriaezintasunak aztertzea eta Kontseiluko edozein kontseilukideren betebeharrak bete ez direla adieraztea.

Batzorde Iraunkorra

Jardunbideari buruzko arautegiak sortu duela, Batzorde Iraunkorra EGABeko Presidenteak, Idazkari Nagusiak eta Kontseilua osatzen duten talde bakoitzeko lau kidek ere osa dezakete. Bere eginkizunen artean, aipatzekoa da Batzordearen Osoko Bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

Lan Batzordeak

Osoko Bilkuraren eginkizuna da lan-batzordeak sortzea eta horiei aginpideak esleitzea.

Lan-batzordeak ondokoak dira::

- **Gizarte Garapenerako Lan-batzordea**, Fernando Fantova Azcoaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Ekonomiaren Garapenerako Lan-batzordea**, Arantza Estefanía Larrañaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Memoria Sozioekonomikoa prestatzeko Lan-batzordea**, Jon Barrutia Güenaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.

Pertsona bakarreko organoak

Kontseiluak pertsona bakarreko bi organo ditu, Presidentzia eta Idazkaritza Nagusia.

Presidentzia

Kontseiluaren ordezkari du eta horren jarduerak artezten ditu; gainera, bilkuren deiak egin, horietan buru jardun eta moderatu egiten ditu.

Idazkaritza Nagusia

Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu teknikoak zuzentzen ditu, Kontseiluaren funtsen gordailuzaina da eta dokumentazioa zaintzen du.

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipioa betez, bere aurrekontua onetsi eta betearazten du Kontseiluak. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako zenbatekoaren bidez finantzatzen da aurrekontua.

Kontratatzerakoan, Kontseiluak sektore publikoaren kontratuen arloan indarrean dagoen legeria bete behar du, herri administrazioetat jotzen den erakundea baita.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

II. KAPITULUA JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

EGAB-EN LEGEAN EZARRITAKO EGINKIZUNAK GAUZATZEA

IRIZPENAK EMATEA:

EGABren Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2021ean Euskadiko EGABek hamabost irizpen eman zituen, zazpi lege-aurreproiektuei buruz, hiru Planei buruz eta gainerako bostak dekretu-proiektuei buruz.

1/21 IRIZPENA, otsailaren 12koa, “Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa”

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2021eko apirilaren 12a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak aurkeztutako Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legearen aurreproiektua izapidetzea; Batzordearen Osoko Bilkurak 2020ko otsailaren 12an onartu zuen Irizpena.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak onartzen du funtsezkoa dela erakundeen ekintza Memoria babesteko, gertatutakoari buruzko gogoeta eginez eta belausaldir berrientzat eskuragarri eginez, askatasunen egungo esparruko lorpenak babesteko eta lorpenaren alde borrokatu zirenen sufrimendua aitortu eta balioesteko.

Ildo horretan, uste du gure ordenamendu juridikoan Euskadiko Memoria Historikoaren politika publikoak arautzea helburu duen lege bat edukitzea

beharrezko pieza dela helburu horiek lortzeko ahaleginean. Horrenbestez, Euskadiko EGABek gustura hartu du Gogora Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren legegintza ekimena, azaldutako planteamendua eta helburuak dituen lege bat aldarrikatzeko dena; eta oso positibotzat jo du.

Batzordea erabat jakitun da Memoria Historikoaren politika publikoak arautzeko EAEko legerik ez egoteak ez duela esan nahi EAEko erakundeek arlo horretan jardun instituzionalik egin ez dutenik. Aitzitik, aitortu egin behar da Euskadik eremu horretan (eta gaur egun Memoria Historikoaren berariazko legeak dituzten autonomia erkidegoek baino lehenago) egin duen jarduera; jarduera jarraitua, denboran zehar jarraitua eta finantzarioki hornitua, zenbait arlotan (hobi komunak lurpetik ateratzean, esaterako) lidergo-posizioa ere markatu duena.

Laurogeiko hamarkadatik hona Euskadik izan duen ibilbidea azkar aztertu ondoren (bai araudia, ikerketa eta azterketari dagokionez, bai gerra zibileko eta erregimen frankistako biktimen aitorten publikoari dagokionez, Memoria Historikoaren politika publiko bati erantzuten diotenak), irizpenak nabarmentzen du 2014an 4/2014 Legea onartu zela (4/2014 Legea, azaroaren 27koa, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoa, Memoriaren sustapenarekin lotutako politika publiko sustatu, garatu eta kudeatzeaz arduratzen den erakunde gisa). Erakundeak Euskadiko Memoria Demokratikoa zaindu eta helarazteko eginkizuna du; eta Euskadiko Memoria Historikoko politiken bilakaeran urrats garrantzitsua da hori, politika horiek garatzeko subjektu instituzional bat ezartzen baitu eta bere eskumenak definitzen baititu.

EGABek adierazi du Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektua 4/2014 Legearen beharrezko osagarria dela, Euskadiko Memoria Historikorako politika publikoak arautzeko eta arlo horretako jarduera instituzionalaren edukia definitzeko tresna juridikoa baita; eta, hala, politika horien subjektu instituzionalari buruzko tresna juridikoarekin bat egiten du 4/2014 Legeak.

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea beste jauzi kualitatibo bat da Euskadiko Memoria Historikoaren politikak eratzeko prozesuan, eta ondorio positiboak eta desiragarriak proiektatzen ditu horien hainbat alderditan.

Memoria Historikoaren politika publikoak arautzeko lege-mailako tresna juridiko bat onartzeak esan nahi du politikaren estatusa handitu egin dela, gauzatu den ekintza indartu egin dela; eta, era berean, segurtasun juridiko handiagoa ematen die jarduketei.

Lege-estaldura berriak politikaren jardun-eremua markatuko du, eta horrek lagunduko du bultzatzen diren jardueren edukiak ulertzen. Gainera, aukera emango du egindakoa finkatzeko eta praktikan sortu diren eta Gogora Memoriaren Institutuaren Legean erreferentziarik ez duten jarduera-ildoei estaldura juridikoa emateko.

Era berean, orain arte modu zatituagoan eta loturarik gabe egin ahal izan diren jarduera guztiak koherenteak eta harmonizatuak izatea ahalbidetuko du, eta printzipio eta lehentasun komun batzuen arabera zentzu-batasuna emango die.

Azkenik, arlo horretako jardun publikoari egonkortasuna emango dio, bai eta jarraitutasun-berme handiagoa ere; eta finantzaketa eta borondate politikoa eskatzen jarraituko du.

Laburbilduz, EGABen ustez, Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren arloko Lege bat onartzea oso urrats positiboa da, eta arlo horretako politika publikoen garapeneraren onerako izango da; hala, EAEko gizartearen bizikidetzaren demokratikoaren balioa nabarmentzeko eta hura babesteko funtsezko gai bat baldintza hobetan sendotzen eta bultzatzen lagunduko da.

2/21 IRIZPENA, maiatzaren 12koa, "etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxiengoaren bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari" buruzkoa

Sarrera data: 2021eko apirilaren 20a

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egindako proiektu hau izapidetzea, organo aholku-emaila honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Dekretuaren xedea da EAEn kokatutako etxebizitzek eta zuzkidura-bizitokiak bete beharreko gutxiengo bizigarritasun-baldintzak ezartzea, bai eta nagusiki bizitegi-erabilera duten eta bertan dauden eraikinek bete beharrekoak ere; duinak, egokiak eta irisgarriak izan daitezela bermatzeko. Babes publikoko etxebizitzek kalifikaziorako errespetatu behar dituzten diseinu-arauak ere zehazten ditu testuak.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena egin zaion proiektuak etxebizitzaren bizigarritasuna arautzen du; etxebizitza bizitza-proiektu bat garatzeko aukera ematen duen gune gisa ulertuta, oinarrizko baldintza hauek betetzen dituena: azalera eta altuera, erosotasun termikoa, ekipamendua, osasungarritasuna, irisgarritasuna, erabilera eta mantentzea (bizitzaren etapa desberdinetara eta behar berri eta bizimodu modernoetara egokitzeko eskaini behar duen malgutasuna edo aldakortasuna ahaztu gabe).

Etxebizitza berriaren bizigarritasun-baldintza horiek komunak dira sustapen libreko etxebizitzarako eta etxebizitza publikorako; baina azken horrek diseinu-arau batzuk bete behar ditu, etxebizitzaren gehieneko azalera bizitegi-programarekin baldintzatzen dutenak, zuzkidura-bizitokiekin gertatzen den bezala.

Irizpenak berriazko gogoeta batzuk jasotzen ditu aztertutako testua hobetzeko proposamen gisa. Hala, adibidez, EGABek ikusi du Dekretu Proiektuak ez duela adierazten zer epe zehaztu den bizigarritasun-ezaren deklarazio bat itzultzen saiatzeko. Era berean, lehendik dauden eta birgaitzekoak ez diren etxebizitzetan eta zuzkidura-bizitokietan su-itxalgailuak eta ebakuazio-planak jartzeko betebeharra sartzea gomendatzen du. Alderdi hori "beste araudi batzuetan araututa dago, baina ez legoke sobera araudi honetan esplizituki agertzea".

Salbuespen kasuei dagokienez, eraikinen eta dauden lurzatieen morfologia berezi eta konplexuak bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak betetzea eragozten duenean —betiere hirigintza-plangintzak hala aurreikusten badu—, EGABek arauari honako testu hau gehitzea proposatzen du: "baldin eta erabilera, kontserbazio, osasungarritasun, higiene eta segurtasun egoera onean badaude".

Azkenik, EGABek iradokitzen du terminoen eta kontzeptuen definizioak arau-testuaren hasieran jasotzea, azken eranskinean jaso ordez, dokumentua ulergarriagoa izan dadin.

3/21 IRIZPENA, ekainaren 28koa, "Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Planari" buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko maiatzaren 17a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak aurkeztutako Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Plana izapidetzea; Batzordearen Osoko Bilkurak 2021eko ekainaren 28an onartu zuen Irizpena.

Planaren xedea da industria-izaera nabarmeneko ekonomiaren suspertzea bizkortzea, kalitatezko enplegua sortzen duena, eraldaketa digitala, energetiko-klimatikoa eta demografiko-soziala bere gain hartuz produkzio-egituraren lehiakortasuna indartzeko aukera gisa; eta ingurumen-irizpideak politika sektorial guztietan txertatzea, ez baldintzatzaile gisa, baizik eta balioa sortzeko lehiakortasun- eta aukera-faktore gisa.

Ildo horretan, Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Planak datozen urteetako industria-garapenari ekiteko hartzen duen planteamendu estrategikoak EGABen iritzi positiboa merezi izan zuen, eta egungo eta etorkizuneko industria-premiekin bat zetorrela iritzi zion. Planteamendua, laburbilduta, honakoa da: COVID-19ari ahalik eta industria- eta enplegu-sare handienarekin aurre egitea; industria-sarea suspertzea eta eraldatzea krisitik azkar eta indartuta ateratzeko; eta, azkenik, industria berritzea eta eraldatzea, krisiaren aurretik ere identifikatzen

ziren eta COVID-19ak eta suspertze dinamikak bizkortu dituzten trantsizio hirukoitzek (energetiko-klimatiko, teknologiko-digitala eta demografiko-soziala) eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko.

Edukia positiboki baloratu zen; hala ere, ondoren nabarmenduko diren gogoeta orokor eta berariazko batzuk egin ziren.

Industria eta Nazioartekotze 2017-2021 Planen balantzea

EGABek gomendatzen du Planaren atariko ataletan 2017-2021 aldiko Industrializazio eta Nazioartekotze Planen ebaluazio osatuagoa sartzea. Ebaluazio horrek adieraziko du helburu bakoitza zein neurritan lortu den, eta abiarazitako neurrien eraginkortasun handiagoari edo txikiagoari buruzko erreferentzia egingo du. Halaber, 2017-2020 Industria Planaren helburu estrategikoak betetzeari buruz Planak egiten dituen baieztapenak jasoko ditu dagozkion ebidentziekin eta adierazle egokien taulekin.

Indarguneak, erronkak eta ahuleziak

Testuan jasotzen den balantzea baikorregia da; EAEko industriaren lorpenetan eta indarguneetan soilik jartzen du arreta, eta ez ditu haren ahuleziak eta mehatxuak aipatzen. Horiei buruzko aipamen bakarra Planaren balantzeak nabarmendutako erronka batzuei buruzkoa da. EGABen iritziz, badira erronka gehigarri batzuk, Planean kontuan hartu, aurre egin eta konpondu beharrekoak industria garatzeko eta abian dauden trantsizioei erantzuteko. Erronka horiek demografiarekin eta enpresa-tamainarekin lotuta daude.

EGABek alderdi horietan jarduteko beharra adierazten du. Horrela, alde batetik, Planak industriaren beharrak jaso behar ditu, datozen urteetan beharko dituen pertsonen gaitasunei dagokienez, eta baita ziurrenik beharko dituen pertsonen kopuruari dagokionez ere.

Enpresa-dimentsioari buruzko lehiakortasun-palanka berri bat eratu behar da, estrategia argi eta asmo handikoa jaso eta definituko duena, Euskadin batez besteko enpresa- eta industria-tamaina handitzea sustatzeko datozen urteetan egin beharreko jarduera zehatz eta esplizituekin.

Planaren ekarpena kalitatezko enplegua sortzeko

Batzordeak egokitzat jotzen du Planak enplegua mantentzeko eta sortzeko duen konpromisoa nabarmentzea. Atariko zatian adierazi duenez, Planaren xedea da industria-izaera nabarmeneko ekonomiaren suspertzea bizkortzea, kalitatezko enplegua sortzen duena. Gaineratu duenez, Planak sortutako kalitatezko enpleguak presentzia handiagoa ere izan beharko luke jarraipenean, ebaluazioan eta ikaskuntzan, agente-koadroko enpleguaren arloko adierazleen bidez; horrela, Planak enpleguan duen eragina behar bezala baloratu ahal izango litzateke.

Lehiakortasuna berritzeko ardatzak eta palankak

Batzordeak adierazi du atalean jasotako lehiakortasun-palankak eta neurri eta ekintzak lehenesteko ahalegina egin beharko litzatekeela, eta horrek Plan berriaren fokua hobeto ikusaraztea ahalbidetuko lukeela. Gomendagarritzat jotzen du, halaber, jarduketa garrantzitsuenekin batera diru-hornidura edo tartean sartutako giza baliabideak, neurrien ardura duen agintaritza eta ekintzen arteko beharrezko koordinazioa egotea.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Neutraltasun teknologikoa trantsizio energetikoan eta klimatikoan

Industria-aukera berriak eraldatzeko palanka gisa energiaren eta klimaren trantsizioari dagokionez, EGABek funtsezkotzat jotzen du neutraltasun teknologikoa aipatzea trantsizio horren funtsezko beste puntu bat bezala.

Eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea

EGABek balorazio positiboa egin du ekonomia- eta gizarte-eragileek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko ordezkariekin inoiz baino beharrezkoagoa den hitzarmen sozialaren esparruan egindako bileren inguruan.

Gaineratu du komenigarria litzatekeela Plana egiteko fasean izandako esperientzia hori bere gobernantzara eta jarraipenera zabaltzea, eragile ekonomiko eta sozialek Elkarriketa Sozialerako Mahaiaren bitartez eta eragindako gainerako eragileek parte hartuz.

Plana hedatzea

Batzordeak funtsezkotzat jotzen du Planari eta bertan aipatzen diren programei ahalik eta zabalkunderik handiena ematea; izan ere, berak aitortzen duenez, "egindako ahaleginak gorabehera, oraindik enpresa-kopuru handi batek ez du nazioartekotzeko eskuragarri dauden programa eta zerbitzu guztien ezagutza egokirik".

4/21 IRIZPENA, uztailaren 30ekoa "kable bidezko garraioaren Lege Aurreproiektuari" buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera data: 2021ko uztailaren 6a.

Emaitza: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak aurkeztutako Kable bidezko Garraioaren Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak proposatu du kable bidezko garraioa arautzeko berariazko arau bat egokia den baloratzea; Osoko Bilkurak 2021eko uztailaren 30ean onartu zuen Irizpena.

Aurkeztutako aurreproiektuaren helburua da pertsonak kable bidez garraiatzeko Autonomia Erkidegotik igarotzen diren instalazioen proiektzioa, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea.

Kable bidezko garraioa ezaugarri bereziak dituen lurreko garraioaren modalitate bat da. Bertan, egindako ibilbidean zehar jarritako kable bidez esekitako ibilgailuetan egiten da pertsonen garraioa, edo errodadura finkoko lurreko bide batean zehar kableen bidez trakzionatutakoetan. Lehenengo kasuan, teleferikoak bezalako instalazioak daude, telekabinen eta teleaulkien aldaeretan; kable eseki batek edo gehiagok mugitzen dituzte, errodadura-biderik gabe. Bigarrenean, funikularrak, gurpilen edo bestelako gailuen bidez errodadura-bide baten gainean sostengatuak eta kableen bidez trakzionatuak. Badira beste modalitate batzuk, hala nola teleskiak; modalitate horretan, kableen bidez tiratutako arrasteek pertsonak, behar bezala ekipatuta, atoian eramaten dituzte. Garraio-modu horretatik kanpo geratzen dira igogailuak, jasogailuekin parekatutako kategoria propioa osatzen baitute; eta ez dira sartzen, ezta ere, kable bidezko trakzioa duten ohiko tranbiak, ezta kable bidez eragindako ontziak ere.

Hala, bada, Batzordeak egiaztatu du kable bidezko garraioa errepideko eta trenbideko modu klasikoetatik ezberdina den lurreko garraio bide bat dela; eta, nahiz eta garraioen eremu globalean duen garrantzia mugatua izan, honako ibilbideetan zerbitzua ematen duen modu bat da: dituzten ezaugarrietatik, errepideak edo trenbideak zerbitzua eman ezin duten (edo, gutxienez, hain modu eraginkorrean eman ezin duten) ibilbideetan. Are gehiago, irisgarritasuna eta pertsonen joan-etorrien beharrak asetzea bermatzen duen beste garraio bide publiko alternatiborik ez dagoen lekuetan ezinbestekoa izatera ere iritsi da.

Irizpenak Euskadik dituen kable bidezko garraio-instalazioak identifikatzen ditu, garraio publikoko 4 funikularrek osatuak: Larreineta, Mamariga, Artxanda eta Igeldoko funikularrak. Horien trafikoa handituz joan da urteetan zehar, baina ekonomian eta gizartean duten garrantzia ez da beste autonomia erkidego batzuetan bezain nabarmena; beste autonomia erkidego batzuetan askoz instalazio gehiago dituzte, bereziki neguko kirolekin zerikusia dutenak eta Euskadik ez dituenak.

Batzordeak uste du Lege Aurreproiektuaren irismen material txikia eta Euskadiko kable bidezko garraioaren dimentsio apalak elementu bereziki garrantzitsuak direla ekimenaren egokitasuna baloratzeko, eta bereziki beharrezkoa dela horiek justifikatzea. Izan ere, dimentsio horiek oso urrun daude arlo horretan legeak egin dituzten beste autonomia-erkidego batzuek dituztenetatik, horietako eski-zentroen eta neguko kirolen garapen garrantzitsuari lotutako hedapen-maila baitute; eta ez da aurreikusten Euskadin halako hedapenik izango dutenik.

Horri dagokionez, EGABek adierazi du, egungo idazketan, lege-ekimenaren justifikazioa oso modu laburrean aurkezten dela; eta, sakonduz gero, elementu gehiago eta hobeak egongo lirakeela ekimen horren beharra eta aukera baloratzeko. Zehazki, Zioen Azalpenean eta justifikazio-memorian azaltzen denez, gaur egun kable bidezko garraio-instalazioak arautzen dituen estatuko lege-esparrua ez da nahikoa, azken urteotan garraio mota horrek izan dituen berrikuntza teknologikoak direla-eta —berrikuntza horiek (EB) 2016/424 Erregelamenduan, pertsonak kable bidezko garraiatzeko instalazioei buruzkoan, jaso dira—. Ondorioz, beharrezkoa da gaia arautuko duen lege-mailako arau bat edukitzea.

Testuinguru horretan, Batzordearen Irizpenaren ondorioa da planteatzea aurreproiektuak ahalegin handiagoa egin behar duela lehentasunezko hobekuntza-arlo gisa duen premia eta egokitasuna azaltzen duten elementuak ematean, eta horrek oinarri irmo eta sendagoen gainean ezartzen lagunduko du. EGABen ustez, ahalegin hori bi norabidetan egin beharko litzateke:

- lege-mailako arautzea beharrezkoa egiten duten arazoak identifikatzea; kontuan hartuta erregulazioaren benetako eremu material txikia, gaia arautzen duen Estatuko araudi bat eta Europar Batasuneko lurralde osoan zuzenean aplikagarria den Europako arau bat badaudela, eta ez dela zehaztu berrikuntza teknologikoek indarrean dagoen araudian duten eraginaren norainokoa.
- azaltzea zergatik ezin den erregulazioa —beharrezkoa bada— arau orokorrago baten barruan sartu; esaterako, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legean (izapidetze-egoera aurreratuan dago, eta irizpena egiteko unean Batzorde honen nahitaezko txostenera aurkeztua). Horrek, era berean, legegintza-ugaritasuna saihesten eta lotutako gaietan eragiteko arauak hobeto antolatzen lagunduko luke.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

5/21 IRIZPENA, uztailaren 30ekoa, "2024rako Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planari" buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera data: 2021eko uztailaren 8a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako proiektu hau izapidetzea.

Plan honen xedea da Euskadiren trantsizioa sustatzea baliabideen erabileran ekonomia eraginkorrago baterantz, produkzio- eta kontsumo-eredu berri batera bideratutako berrikuntzaren bidez; eta lankidetzaren publiko eta pribatuaren bidez, herritarrak, enpresak eta Administrazioa eraginkortasunez inplikatu dituen helburu komuna lortze aldera.

Hori guztia, "ekonomia zirkularrean eta bioekonomian Europa hegoaldean erreferentziatzeko eskualde gisa kokatutako Euskadi bat lortzeko bidean aurrera egiteko, non ingurumena jasangarritasunaren, lehiakortasunaren eta enplegua sortzearen funtsezko faktore bihurtzen baita, eta hazkunde ekonomikoa baliabide naturalen kontsumotik, hondakinen sorreratik eta berotegi-efektuko gasen isurtzetik bereizten baita".

Programa honek, deskribatutako Europako eta munduko testuinguruan, produktuen eta materialen bizi-zikloa ahalik eta luzaroen mantenduko duen ekonomia zirkularreko eredu berri bat bultzatzeko konpromisoa hartzen du; izan ere, laugarren industria-iraultzak, garapen teknologikoan jauzi kualitatiboa ez ezik, hazkunde ekonomikoa eta materialen kontsumoa bereizteko beharra ere erakusten du. Arrazoi horiengatik, positiboki baloratzen da.

Plan honek aintzat hartu beharreko bi elementu biltzen ditu: Europako erreberazio agendako (Next Generation EU) joera eta erronka global handiak, eta Euskadik dituen indarguneak (horiei esker, azken krisian Estatuko eskualde erresilienteena izan zela uste du). Hiru trantsizioen erantzunean aurrera egiteko ahaleginetan oinarritzen da, eta ekonomia lehiakor eta jasangarria bultzatzeko eta garatzeko konpromisotik abiatuta egiten du lan.

COVID-19ak eragindako pandemiaren eraginak agerian utzi du hiru trantsizioak azkartzeko eta asmo handiko proiektuekin jarduteko beharra, Euskadiren lehiakortasuna ziurtatzeko epe ertain eta luzera. Eta, 2024rako Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planak horretarako duen garrantzia kontuan hartuta, EGABek egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du.

6/21 IRIZPENA, uztailaren 30ekoa "2021-2024 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planari" buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko uztailaren 7a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako Plan hau izapidetzea, organo aholku-emaile honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Planaren helburu zehatzak hauek dira:

- Berotegi-efektuko gasen isurtzea % 30 murriztea.
- Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumoaren % 20 izatea lortzea.
- EAeko lurraldeak klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia ziurtatzea.

Eta, horrez gain, hori ezartzeak beste bi helburu lortzen lagunduko du:

- Langabezia % 10etik behera jaistea.
- I+G arloan Europako batez bestekoarekin konbergentzia lortzea.

2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planaren proposamena aztertu ondoren, EGABek zenbait gogoeta orokor eta espezifiko egin ditu. Orokorrekin Plana bere osotasunean hartzen dute; eta, zehazki, testuinguru ekonomikoari, murgilduta gauden trantsizio energetikoari, testuinguru politiko-normatiboari eta Planaren helburuei, egoeraren diagnostikoari, Planaren printzipioei eta gobernantza-ereduari buruzkoak dira.

Planaren printzipioei dagokienez, bi alderdi nabarmentzen dira: alde batetik, horien artean "zero emisioko kulturaren" aldeko apustua aldarrikatzea. Hala ere, dokumentuan ez da aipatzen herritarraren (eta, zehazkiago, herritar kontsumitzailearen) ikuspegitik lan egin behar denik. Bestalde, EGABek uste du beste bi printzipio garrantzitsu daudela trantsizio energetikoan eta aldaketa klimatikoan, horiek ere izan beharko luketela haren inspiratzaile eta, beraz, kontuan hartu beharko lirakeela haien aplikazioan eta hartu beharreko neurrietan; beraz, horiek sartzea proposatzen da. Hauek dira: inklusibotasuna eta karbono-aztarna.

Gobernantza-ereduari buruz, Irizpenak aipatzen du energia-trantsizioak emisio garbirik ez duen ekonomia baterantz dakarren sakonerako eraldaketak erakundeen, eragile ekonomiko eta sozialen eta, oro har, gizartearen babes handia eskatzen duela, bai eta gobernantza-eskema eraginkor bat ere; eta trantsizio energetikoaren prozesuan gizartearen eta eragile sozioekonomiko eta instituzionalen babesa eta konpromisoa lortzea ezinbestekoa dela prozesu hori arrakastatsua izan dadin; izan ere, ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoa den eraldaketak portaerak sakon aldatzea eskatuko du, eta inpaktu asimetrikoak izango ditu sektore ekonomikoen artean (eta sektore berberen barruan) eta biztanleriaren segmentuen artean. Era berean, Planaren garrantzia kontuan hartuta, Plana jendaurrean zabaltzeko eta eragile ekonomiko eta sozialei aurkezteko konpromisoa hartzea proposatzen da.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

7/21 IRIZPENA, irailaren 16ekoa “Euskadiko mugikortasun jasangarriko legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko uztailaren 16a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egindako Lege Aurreproiektu hau izapidetzea, organo aholku-emaile honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Aztertutako testuak pertsonen eta salgaien garraioak zer printzipio eta helbururi erantzun behar dien ezartzen du, mugikortasun jasangarri eta seguruaren garapen integrala lortzeko gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik. Ildo horretan, EGABek gogorazi du gai horri buruzko Europako akordioek (Europako Itun Berdea eta Mugikortasuneko Europako Estrategia) eredu baldintzatzen dutela; eta eredu horrek jasangarria, adimenduna eta erresilientea izan behar duela. Kontsulta-organoaren arabera, eraldaketa horrek “aukera argiak eskaintzen dizkigu pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko; eta industria, balio-kate guztietan, moderniza dadin, kalitatezko lanpostuak sortuz, produktu eta zerbitzu berriak gara ditzan eta bere lehiakortasuna indartu dezan”.

Mugikortasun-eredu berriak dagozkion arau-garapenak egitea eskatzen du. Lan horri egin behar dio aurre irizpena egin zaion testuak, “eta presaz egiten du, Europako mugikortasun-eredu jasangarri eta adimendun berriaren ikuspegia eta printzipioak txertatuz”. Horrenbestez, EGABek “egokitzat eta komenigarritzat” jotzen du legegintza-ekimen hori. Hala ere, hausnarketa eskatzen duten gai batzuk aztertu ditu, eta beharrezkotzat jotzen du aurreproiektuan jaso ez diren gabezia batzuk konpontzea.

Koordinazio-mekanismo zehatzagoa

EGABek adierazi du trantsizio klimatiko-energetikoak, teknologiko-digitalak eta soziosanitarioak dakartzaten eraldaketa sakonen ondorioz legegintza- eta plangintza-zurrunbilo bati aurre egin behar diogula; eta, horren ondorioz, “bereziki beharrezkoa dela horretan guztian ordena eta koordinazioa ezartzea”.

Gaien konplexutasuna, haien inbrikatze handia eta esparru bakoitzeko legegintza-erritmoak kontuan hartuta, Batzordeak planteatzen du “ea benetan ez ote litzatekeen beharrezkoa izango koordinazio- eta antolamendu-mekanismo zehatzago eta espezifikoago bat ezartzea, gainjartzeak saihesteko eta araudiaren eta plangintzaren beharrezko integrazioa hobetzeko”. Horregatik, beharrezkotzat jotzen du garraioa eta azpiegiturak, plangintza eta hirigintza, energia, ingurumena, barne-gaiak (trafikoa) edo hezkuntza bezalako gaietan eskumena duten erakunde-mailek elkarrekin eta une egokian lan egiteko aukera izan behar dutela mugikortasun jasangarri eraginkorra lortzeko politikak lerrokatzeko.

Lantokirako mugikortasuna

Era berean, EGABen arabera, Mugikortasun Jasangarriaren Planaren hamar urteko indarraldia “baliteke pixka bat gehiegizkoa izatea, araututako gaien ingurune hain aldakorra kontuan hartuta”. Gainera, eskubideen eta betebeharren arautze osoagoa proposatzen du, “eskubide eta betebeharrak gisa konfiguratuko dituenak, eta ez mugikortasun-politiken printzipio inspiratzaile huts gisa”.

Azkenik, EGABek lantokirako mugikortasunaren garrantzia azpimarratzen du, eta alderdi horietako batzuk dagoeneko araututa daude Jasangarritasun Energetikoaren Legean. Hala ere, mugikortasunari buruzko lege sistemiko batek esparru horretako berezko gaiak jaso beharko lituzkeela uste du, hala nola enpresen arteko lantokien (enpresa anitzak) mugikortasun-planak edo lantoki berri baten hirigintza-ezarpenak sortzen duen mugikortasuna; hori guztia, eragile ekonomiko eta sozialek gobernantza-ereduan parte hartuta, eta “lanerako mugikortasun-programa, -agentzia edo -bulego espezifiko bat sortuz, enpresei laguntza tekniko eta aholkularitza emateko mugikortasun-plan horiek egin ditzaten”.

8/21 IRIZPENA, irailaren 16koa kiroleko dopinaren aurkako legearen bigarren aldaketaren lege aurreproiektua

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2021eko uztailaren 27a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egindako Lege Aurreproiektu hau izapidetzea.

Arau honen helburua da indarrean dagoen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Munduko Kode berrira egokitzea. Kode hori 2021eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, Dopinaren Aurkako V. Mundu Konferentzian Katowicen 2019an hartutako erabakietatik abiatuta.

12/2012 Legearen bigarren aldaketaren xedea da Dopinaren Aurkako Munduko Kode berrira egokitzea, 2019an egindako Dopinaren Aurkako V. Mundu Konferentziaz eratorritakora. Horrenbestez, EGABek araudia aldatzeko aukera ikusten du.

Dopinaren aurkako Munduko Kode berria 2021eko urtarrilean sartu zen indarrean; eta, besteak beste, eguneratu egin ziren dopinaren arloan legez kanpokotzat jotzen diren jokabideen katalogoko arau-haustek, bai eta agente dopatzaileen zerrenda ere (biak ere oso beharrezkoak, erregulatu beharreko gaian aldaketak oso azkar gertatzen baitira). Horregatik, kontsultatu den Lege Aurreproiektuaren egokitasuna adierazteaz gain, positiboki baloratzen da.

Era berean, Batzordeak positibotzat jotzen du, kirolariei eska dakizkiekeen betebeharrak edo erantzukizun jakin batzuei dagokienez, kirolariak mailakatzea beren kirol-mailaren arabera (nazioartekoa izan ala ez) eta izaeraren arabera (federatua izan edo ez); uste baita horrek zehapen-araubidea modu bidezkoagoan aplikatzea dakarrela.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

9/21 IRIZPENA, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Legearen Aurreproiektua

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko irailaren 1a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak aurkeztutako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Lege Aurreproiektua izapidetzea; Osoko Bilkurak 2021eko urriaren 1ean onartu zuen Irizpena.

Araua helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babesa, defentsa eta sustapena arautzea, eta egungo erregulazioa (Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean jasotakoa) ordeztzea; eta, horrenbestez, indargabetuta geratuko litzateke. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua ere indargabetuko da.

Irizpenean, kontsumo-arloan izandako aldaketa sakonak egiaztatu ditu Batzordeak, bai gaiaren erreferentziazko esparru juridikoari dagokionez, bai kontsumo-praktikei eta horiek jarduten duten gizarte-errealitateari dagokienez. Eta horiek justifikatu egiten dute, Lege Aurreproiektuaren Zioen Azalpenak dioenez, erregulazio berri baten beharra.

Fronte juridikoan, batez ere kontsumoari buruzko erkidegoko araudiaren ugaritzeak eragin ditu erregulazio-aldaketa garrantzitsuak. Era berean, erreferentziazko arau-esparrua aldatu egin da Estatuko araudia aldatu egin delako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen egungo Estatutua indarrean egon den bitartean; eta oinarrizko araudi-esparrua eta Estatuko eskumen eskusiboen babesean emandako xedapenak ezarri dira, autonomia-erkidegoetako arauen garapena baldintzatzen dutenak.

Kontsumo-praktikek urte hauetan izan duten bilakaeraren argigarri gisa, pandemiak, lehertu zenetik igaro diren hilabeteetan, kontsumo-ereduetan izan duen eragina gogorarazi du Batzordeak. Horietako askok irauteko asmoa dute, eraldaketen azkartasunaz eta intentsitateaz jabetzeko.

Teknologiaren aurrerapen gupidagabeak eta kontsumo-harremanen digitalizazioak, merkatuen konfigurazioak, merkataritza-banaketa gauzatzeko moduen eraldaketek, kontratazioak, ordainbideek, kredituaren garapenak eta elementu berrien zerranda luzeak aukera berriak eskaintzen dituzte, baina baita problematika eta erronka berriak ere, bereziki gizarteko kide ahulentzat; kontsumitzailea babesteko eta defendatzeko politikak horiei adi egon behar du eta ahalik eta modu eraginkorrean erantzun behar die.

Kontsumitzaileak joera berrienera —koherenteak direnak kontsumo arduratsuegarekin, jasangarriagoarekin eta ingurumenarekiko begirunetsuegarekin— duen sentsibilitateak kontsumo-politikak balio eta printzipio berriekin konpromisoa hartzea eskatzen du, bai eta horren isla arauemailea izatea ere.

Batzordeak uste du Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestu eta defendatzearen arloan araudi berri bat egiteko onartutako legegintza-ekimena egokia eta beharrezkoa dela, bai araudi hori erreferentziazko arau-esparru berrira egokitzeko, bai denboraren joanak kontsumitzeko eta kontsumoa hautemateko moduetan eragin dituen aldaketei erantzuteko, bai eta Euskadiko kontsumo-harremanen eragile eta subjektuei Europako gure ingurunean nagusi denarekin eta merkatuaren errealitate berrietara eta kontsumoko sentsibilitate eta joera berrietara egokitutako formulazio juridikoekin guztiz bat datorren araudia eskaintzeko aukera emateko ere.

Aurreproiektuaren edukiari dagokionez, Batzordeak berriazko gogoeta ugari adierazi zituen.

Xedapen orokorreari dagokien tituluan, telefonia-zerbitzuak “interes orokorreko oinarritzko zerbitzuen” artean sartzeko eskaera nabarmendu behar da; horrek garrantzi handia du Aurreproiektuan jasotako hainbat egoeratako araubide juridikoa zehazteko orduan. Batzordeak, atal honetan, adierazi du, halaber, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrean lana aurreproiektuan eskaintzen den “erreklamazioa”ren definizioan islatu beharko litzatekeela; bai eta bitartekaritzan duten zereginaren aitorpena ere, “Gatazkak konpontzeko jarduketak” izenburupean.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei dagokienez, Irizpenak gogoeta ugari egiten ditu. Horien artean, Batzordeak eskatzen du Aurreproiektuko “ondasunen pisuan eta neurrietan zehaztasuna izateko eskubidea” pisua eta neurria ezagutzeko eskubide gisa birmoldatzeko, indarrean dagoen legeriak onartzen duen tolerantzia-tartea kontuan hartuta. Era berean, faktura emateko eskubidean zehaztu beharko da zerga-kuotaren banakapena eta aplikatutako zerga-tasa jasotzeko betebeharra. Horri dagokionez, deigarria da salmenta automatikoen kasu berezia eta makinak egokitzeko epe iragankorraren beharra.

Halaber, “interes orokorreko oinarritzko zerbitzuak” zehaztea eskatzen du, bezeroen arretarako zerbitzuei dagokienez, bai eta bezeroei arreta emateko zerbitzuetan eskatzen den kontsumoaren arloan prestakuntza egiaztatua duten langileei buruz ere.

Batzordeak legegilearen arreta piztu du erakusleihoko produktuen prezioak kanpoaldetik ikusteko moduan erakusteko betebeharraren izaera orokorraz eta salbuespenik gabekoaz, eta salbuespenak eskatu ditu hori egokia ez den sektoreetarako.

Azkenik, kontsumoaren arloko erreklamazioen zabalkundeari eta kontsumo ikuskaritzari buruzko xedapenei buruzko proposamenak egiten ditu, haien esku-hartzea bizkortzeko eta gardentasuna eta defentsa-eskubidea bermatzeko.

10/21 IRIZPENA, urriaren 15eko, Euskadiko Gobernantza soziosanitarioari buruzko Dekretu-proiektuaren ingurukoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko irailaren 24a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako Dekretu Proiektu hau izapidetzea.

Arau honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko gobernantza soziosanitarioa lurraldeka definitzea eta antolatzea, gizarte- eta osasun-politiken arloen, lurralde-mailen eta plangintza- eta antolamendu-mailen, antolakuntza- eta laguntza-mailen eta bakoitzaren zerbitzu eta profesionalen arteko egitura- eta funtzio-harremanak taxutu eta formalizatzeko beharrari erantzuteko. Hori guztia, arreta soziosanitarioaren erakunde arteko harmonizazio-eredu baten eta koordinazio funtzional eta diziplina anitzeko baten esparruan.

Egun Euskadin lankidetzeta eta koordinazio soziosanitarioaren arloko erakunde, organo eta profesionalen arteko harremanak egituraz eta funtzionalki antolatzen dituen araudirik ez egoteak (Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren apirilaren 5eko 69/2011 Dekretua izan ezik) agerian uzten du koordinazioaren egituraketa soziosanitario baten beharra; arreta soziosanitarioko maila desberdinek parte hartzen duten harreman organiko eta

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

funtzionalak formalizatuko dituen eta zerbitzuak ematen dituzten organo eta erakundeen parte-hartzea, harremanak, funtzioak eta tresnak zehaztuko dituen plangintza- eta antolamendu-, antolakuntza- eta laguntza-mailetan, arlo sozialak eta osasun-arloak bat egiten duten herritarren beharrei erantzuteko.

Horregatik, EGABek positibotzat jotzen du ekimen hori, eta egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du eremu soziosanitarioan lankidetzarako eta koordinaziorako sistema bat ezartzea, Eusko Jaurlaritzak gizarte- eta osasun-zerbitzuen arloan, foru-aldundiek gizarte-zerbitzuen arloan eta EAEko udalek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten politikak bateratuko dituen eredu baten arabera; eta, horrela, beren elkarguneetan dauden premia soziosanitarioko egoerei erantzuna eman diezaieketen sistemen eta politiken arteko lankidetzak eta koordinazio-guneak sortuko dira.

Era berean, EGABek nabarmendu du laguntzaren kalitatea eta bikaintasuna (laguntza soziosanitarioa osatzen duten esparruetako baliabide eta profesionalen koordinazioan egin diren aurrerapenetatik eratorriak izan behar dutenak) hobetzea bakarrik izango dela posible baldin eta horretarako egiturazko beharrei zein sortzen ari diren berriei aurre egiteko behar adina baliabide ekonomiko erabiltzen badira.

11/21 IRIZPENA, azaroaren 11ko “Euskadiko Inklusiorako eta diru sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa”

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko urriaren 13a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak egindako Lege Aurreproiektu hau izapidetzea, eta uste du egungo egoerarekiko aurrerapen positiboa dela.

Legegintza-ekimen honen helburua da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea. Sistema horren helburua da pertsonak baztertzeko arriskua prebenitzea; bazterkeria pertsonaleko, sozialeko eta laboreko egoerak arintzea; bizitza duinaren garapena bermatzea; eta baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenak gizartean erabat gizarteratzea sustatzea. Horretarako, lege berriaren helburu nagusia da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoaren funtzionamendua egokitzea, eta, bereziki, sistema osatzen duten prestazio ekonomikoena; Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta hortik eratortzen diren xedapenak eguneratuta.

Euskadin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia larritik babestu nahi ditu hori hautematen duten gehien-gehienak, pobrezia eta gizarte-bazterketaren maila orokorrak murriztuta. Hala ere, Irizpenak adierazten duen bezala, 2008ko finantza-krisiaren osteko hazkunde ekonomikoak ez du eragotzi pobrezia eta gizarte-bazterketa haztea Euskadin.

Bestalde, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi soziosanitario eta sozioekonomikoaren ondorioz, egoerak okerrera egin du nabarmen. Eta aldaketa horiei gehitu behar zaizkie maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua, bizitzeko gutxieneko errenta (BGE) ezartzen duena, onartzetik datozenak; horrek Sistema osoa birplanteatzera eta berriz diseinatuzera behartzen du.

Horrek guztiak beharrezko egiten du Batzordearentzat gizarte-babeseko, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko neurriak egokitzea, Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazio ekonomikoen estaldura eta eskuragarritasuna hobetzeko eta lan- eta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituzten EAEko herritarren sarbidea hobetzeko gizarte-zerbitzuetarako eta kalitatezko enplegurako.

EGABen ustez, egokia da egungo arau-esparrua modernizatzea, eta beharrezkoa da arau-esparru hori eta Sistema bera sakon eguneratzea.

Era berean, Irizpenak, gogoeta orokorren artean, araua egiteko prozesuan adostasunaren garrantzia jasotzen du. Izan ere, "nahi dugun gizartearen ideia definitzeko eztabaida da, eta, beraz, Sistemaren aldaketan antolatzen diren neurri zehatzetatik askoz haratago doa. Gure ustez, gure erkidegoko elementu egituratzaile bati buruzko eztabaida baten aurrean gaude". Era berean, Batzordearen arabera, aurreproiektua anbizio handikoa da edukian; eta zuzen identifikatzen ditu egin beharreko erronka garrantzitsuak.

Arauaren alderdi hauek balioesten dira: laneratzera eta gizarteratzera bideratutako zerbitzuak arautzea, prestazioen kudeaketa eraginkorragoa eta erabiltzaileen eskubidea aitortzea erraztuko duen prozedura, eta ikuskatzeko ahala Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema zaintzeko elementu egituratzaile gisa. Bestalde, hobetzeko eremu gisa aipatzen dira, besteak beste, prestazioen zenbatekoei buruzkoak, DSBE jasotzen duten langileei buruzko erregulazioa edo adinari eta erroldatzeari buruzko baldintzak.

Irizpenak berariazko hainbat gogoeta aurkezten ditu arauaren hobekuntza gisa: proposamena egitea 1. artikuluan aipatzeko, lortu beharreko helburuetako bat bezala, lan-merkatuan (berr)integrazioa sustatzea; 3. artikuluan, lan-merkatuan sartzea lehentasunezko aukeratzat hartzea; prestazio ekonomikoak betebeharrak betetzearen baldintzapekotzat jotzea 11. artikuluan; bazterkeria digitalik eza babestea, 69. artikuluari dagokionez; onartutako prestazioak kontrolatzeko bi urtean behin baino aldizkakotasun txikiagoa proposatzea, 82. artikuluari dagokionez; Gizarteratzeko Programa Integratua eta Pertsonala sinatzeko ezarritako epea murriztea, prestazio ekonomikoak onartzen diren egunetik, 118. artikuluari dagokionez; eta, azkenik, 119. artikuluari dagokionez, Lanbidek lan-eskaintza edo prestakuntza-ekintza bat eskaintzeko proposamena, prestazioa jasotzen den urte bakoitzeko.

12/21 IRIZPENA, abenduaren 9ko, Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen aurreproiektua

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko azaroaren 11

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako Euskadiko Osasun Publikoaren Lege Aurreproiektua izapidetzea; Batzordearen Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 9an onartu zuen Irizpena.

Lege Aurreproiektu bat da, eta EAEko araudian txertatzen ditu osasunaren kontzeptuetan eta praxietan izandako bilakaera eta aurrerapenak, EAEko herritarren osasun-maila ahalik eta handiena babesteko eta indartzeko, garapen jasangarriaren helburuak eta politika guztietan osasunaren ikuspegia oinarri hartuta; osasun publikoaren arloko eskumenak, prestazioak eta zerbitzuak definitu eta antolatzeko; eta Euskadiko Osasun Publikoko Sistema sortzeko.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Osasun Antolamenduari buruzko Legea aldarrikatu zenetik hogeit hamar urte baino gehiago igaro dira; eta osasuna babesteko antolamenduaren inguruko beharretan, erronketan eta ikuspegietan bilakaera garrantzitsua izan dela egiazta daiteke. Zioen Azalpenak eta Lege Aurreproiektuaren justifikazio-memoriak osasun publikoaren kontzeptuak izan dituen aldaketan, osasun publikoaren inguruko politika publikoak zuzendu behar dituzten printzipio berrien eta haren gobernantzaaren modalitate berrien berri ematen dute.

Osasuna, neurri handi batean, osasun-eremutik kanpoko faktoreek baldintzatzen dutela onartzearen ondorioz, osasun publikoko politika eraginkor batek sektore publiko guztiak interpelatzen ditu; eta osasunaren ikuspegia politika guztietan aplikatu behar da gobernu-estrategietan.

Herritarren osasuna eta ongizatea hobetzea ez da jada osasun-sailen eginkizun eksklusiboa, eta botere publikoek eta hainbat politika sektorialek parte hartzen dute. Osasunari buruzko gogoetak erakunde eta politika-arlo guztien esku-hartzeetan sartzen dira, eta sarean antolatzen dira zeregin hori duten eragile ugari, zerbitzu integralak eman eta ahalik eta osasun-maila handiena lortzeko.

Ikuspegi horretatik, agerikoa da osasun-antolamenduaren inguruko ordenamendu juridiko bat eguneratu behar dela, eta osasun publikoko sistema moderno baten eskakizunetara egokitu behar dela osasun publikoaren kontzeptu zabalago batek —nazioartean eta Europan nagusi diren ikusmoldeekin eta foro horietan hartutako konpromisoekin bat datorrena— dakartzan erronka berriekin bat etorritz.

Testuinguru horretan, Batzordeak oso egokitzat eta beharrezkotzat jo zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren ekimena, EAEko osasun publikoa kontzeptuaren luze-zabalean jorratzeko lege-testu bat egiteko ekimena; osasun publikoa, neurri handi batean, osasun-eremutik kanpoko faktoreek zehazten dutela ulertzearen inplikazio guztiei helduz, eta horretan gobernuaren politiken sektoreek eta arloek esku hartu behar dutela kontuan hartuta. Batzordeak adierazi du bat datorrela lege-testu berri baten beharrezkin; izan ere, osasun-antolamendua osasunerako eskubidea babesteko funtsezko alderdia denez, horrek lanketa zabalagoa eskatzen du (Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak gaur egun eskaintzen duen erregulazioa gainditzeko duena) eta jardueraren eremu zabalago bat egituratzea eskatzen du (bertan biltzeko osasunarekin zerikusia duten gaietan eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-mailak, bitartekoak eta baliabideak, baita tartean diren eragile ugari ere).

EGABek positibotzat jotzen du Aurreproiektua, uste baitu ondo kohesionatutako eta egituratutako testua dela eta garapen tekniko egokia duela. Adierazi zuen, halaber, uste zuela testua erregelamendu bidez behar bezala garatzea ezinbestekoa eta premiazkoa dela lege berria behar bezala ezartzeko eta eraginkorra izateko.

Balorazioen ondoren, Irizpenak hobetzeko arlo batzuk nabarmentzen ditu:

EGABen ustez, beharrezkoa da argitasuna eta zehaztasuna sartzeko aurreikusten dituen larrialdi, krisi edo pandemia egoera bakoitzaren kontzeptu- eta irismen-desberdintasunei buruz, bai eta horiek zehazteko ardura duen organoari buruz ere.

Testuan zehar, eskubide batzuen egikaritzea mugatzen duten hainbat xedapen jasotzen ditu Batzordeak; eta horiek, beren izaeratik, hertsiki murriztu eta justifikatu behar dira. Bereziki sentikorra den eremua izanik, EGABen ustez, zorrotasun eta argitasun handiena behar du; eta, ahal den neurrian, katalogazioa egitea komeni da.

Osasun Sistema Publikoaren gobernantza-sarearen konfigurazioaren esparruan, Aurreproiektuak hainbat irudi aurreikusten ditu, eta EGABen iritziz irudi horiek ez dira behar bezala definituta agertzen beren eskumenei, eginkizunei, gobernantza-sarearen barruko kokapenari eta hura osatzen duten gainerakoekiko erlazioari dagokienez. Irudi horien guztien formulazioa oso irekia denez, Batzordeak uste du beharrezkoa dela legegileak arreta handiagoa jartzea irudiak ordenatzeko; horien nondik norakoak, eskumenak eta eginkizunak zehazteko; eta beharrezko erregelamendu-garapenaren oinarriak ezartzeko. Horrela, argiago ikusi ahal izango dira proiektatzen den antolaketa-eta jarduera-egitura osoa, irudi bakoitzak bertan betetzen duen lekua eta ezartzen diren erlazioak —bai EAEko Administrazio Orokorraren ikuspegitik, bai lurraldeen eta administrazio publikoen ikuspegitik—, sare eraginkorra eta bikoiztasunik gabea bermatzeko.

Erakunde pribatuei dagokienez (Aurreproiektuan ere aurreikusita dago horiek Euskadiko Osasun Publikoaren Sistemaren parte hartzea), Batzordeak ez du zehaztasunik ikusten Osasun Publikoaren Sistemaren esparruan aurreikusitako lankidetzaren inguruabarrei eta modalitateei buruz, eta zehaztasun handiagoko kasu horiek betetzeko beharrari buruz.

Azkenik, parte hartzeko bideei dagokienez, EGABek adierazi du ez daudela argi; eta uste du oso beharrezkoa dela argibide gehiago ematea, garrantzitsua baita herritarrek edo gizarte zibileko hainbat erakundek eskura izatea osasunean era batera edo bestera eragiten duten politiken diseinua, garapena eta kontrola.

13/21 IRIZPENA, abenduaren 9an, “Adikzioen eta droga-mendetasunen gaineko arreta integralari buruzko apirilaren 7/ko 1/2016 legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko sistema arautzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa”

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko azaroaren 16a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Osasun Sailak egindako Dekretu Proiektu hau izapidetzea, organo aholku-emaile honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Dekretuaren xedea da zehapenak ordeztzeko sistema arautzea eta 1/2016 Legearen 93. artikuluan xedatutakoa garatzeko prozedura ezartzea; izan ere, artikulua horretan isun-zehapenen ordeztzeko neurri alternatibo batzuk hartzeko aukera ezartzen da.

Batzordeak izapidetzea egokitzat jotzen badu ere, proiektuaren edukiari berari eta finantzaketari buruzko zenbait gogoeta sartu ditu.

Proiektuaren edukiari buruz

EGABi deigarria egiten zaio artikulua eta Zioen Azalpena bera irakurrita argi ikusten dela arau-hauslearen borondatezko baimena funtsezkoa dela Dekretuan jasotzen diren neurri alternatiboak aplikatu ahal izateko. Alde horretatik, bi kasu aurreikusten eta arautzen dira: (i) adin nagusikoen adostasun pertsonala; eta (ii) adingabekoen kasuan, guraso-ahala edo legezko ordezkariaren adostasuna. Horrek esan nahi du Dekretuak ematen duen aukeratik kanpo geratzen direla tutoretzarik ezarri ez zaien eta adikzio-egoera pertsonala dela-eta baimen informatua

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

emateko moduan ez dauden adinez nagusiak.

EGABen iritziz, gogor samarra da kolektibo horri Dekretuak ezartzen duen aukera ukatzea, are gehiago ordezkotako neurrietako bat tratamendu-programa bat aplikatzea bada. Kasu horietarako, agian, gizarte-zerbitzuek baimen hori emateko esku hartzea aurreikus liteke, adibidez.

Organo aholku-emailearen ustez, adierazitakoak hausnarketa bat eskatuko luke gutxienez (hausnarketa hori agian dagoeneko egin da); azkenean, hausnarketa hori aintzat ez hartzea erabaki da, beste arrazoi batzuegatik.

Finantzaketari dagokionez

Azaldutakoaren arabera, eta Memoria Ekonomikoan jasotzen den bezala, Dekretu Proiektua indarrean jartzeak ez dio gastu gehigarrikeri eragingo EAEko Administrazioari; eta horrek organo aholku-emaileak balorazio positiboa egitea dakar.

14/21 IRIZPENA, abenduaren 9an, “garapenerako lankidetzaren programetarako laguntzak arautzen dituen Dekretu-Proiektuari buruzkoa”

Batzordea: Sozial Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko azaroaren 18a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak egindako Proiektu hau izapidetzea.

Arau honen xedea da garapenerako lankidetzaren programak finantzatzeko laguntzen araubidea arautzea. Programa horien helburua da giza garapen iraunkorra sustatzea, ikuspegi lokal eta global batetik. Ikuspegi hori elementu hauek definitzen dute: egiturazko arazoei eta erronka globalei heltzea, Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundearen arteko artikulazioa, aliantza zabalak eta askotarikoak eratzea eragile eta erakundearen artean, maila anitzeko ekintza eta subjektuei laguntzea eta herritartasun globala eraikitzea.

EGABen ustez, arau berriak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak berak hautemandako egungo programatresnaren ahulezia batzuk gainditzeko lagunduko du. Horien artean, honakoa nabarmentzen dugu: malgutasun mugatua edo alde aurreko egiaztapen-sistemaren baldintza batzuk ez egokitzea eta, aldi berean, sistemaren indarguneak indartzea (horien artean dago garapenerako garapen- eta hezkuntza-ekintzak tresna berean txertatzea).

Era berean, aurkeztutako Dekretu Proiektuaren aldaketaren artean, bereziki balioesten da ikuspegi lokal-globalaren zentraltasunari dagokiona. Dekretu Proiektuaren azalpen-memorian argudiatzen den bezala, orientazio horrek zuzeneko lotura du azken hamarkadan nazioarteko testuinguruan gertatutako aldaketekin. Krisi desberdinak elkartzen diren egoera batean gaude: ekonomikoak, ekologikoak, instituzionalak, politikoak, sozialak, humanitarioak, balioen arlokoak, osasun arlokoak eta abar; dimentsio global nabarmena dute, nahiz eta herriei eta pertsoneri oso modu berezian eragiten dieten.

Bestalde, egokitzen jotzen da arau berriak garapenerako lankidetzaren programen identifikazioa eta betearazpena diruz lagun daitezkeen bi fase desberdin gisa ezartzea, eta egikaritze-faseko finantzaketa programen behin betiko proposamenak baloratzeko prozesu bat garatzera baldintzatzea. Horrela, fase bakoitzari berariazko denbora-tarteak eman ahal izango zaizkio, eta horrek prozedura eraginkorragoa izaten lagunduko du. Hala, saihestu egingo dira

egikaritze-ondorioetarako baliogabeak diren denbora-tarteak; egungo araudiaren arabera, identifikazioa egin, jarraipen-batzorde mistoa deitu eta ekimena abian jartzeko baimena eman bitartekoak.

15/21 IRIZPENA, abenduaren 17an, “Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren Dekretu-proiektuari buruzkoa”

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea

Sarrera data: 2021eko urriaren 30a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako Dekretu Proiektu hau izapidetzea; organo aholku-emaile honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Dekretuaren xedea da itsas arrantzako, itsaski-bilketako eta akuikulturako jarduera kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak arautzea, EAEko Administrazio Orokorraren eskumenen esparruan. Helburua da itsas arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren arloko araudia betetzen dela bermatzea; eta itsas baliabideak babesteko beharrezkoak diren jarduketa guztiak aurreikustea eta egitea fase guztietan, harrapaketatik edo ekoizpenetik merkaturatzeko azken fasera arte.

Erkidegoko arrantza-politikaren helburu orokorra da ur baliabide bizen ustiapena bermatzea, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-baldintza jasangarriak erraztuko dituen.

Batzordearen 1992ko abenduaren 20ko 3760/92 (EEE) Erregelamenduak (“Arrantzarako 1 MAE”) arrantza-sektore osoari aplikatzeko kontrol-sistema komunitario bat ezartzeko betebeharra aurreikusten du.

Aurreikuspen hori garatzeko, Batzordearen 2009ko azaroaren 20ko 1224/2009 (EE) Erregelamenduak (“Kontrol-erregelamenduak”) arrantza-politika bateratuaren aplikazio-eremuan sartzan diren jarduerak kontrolatzeko betebeharra ezartzen die estatu kideei. Bereziki, honako hauek kontrolatu behar dituzte: arrantza-jarduerak, ontzi-aldaketak, arrainak kaiolatara edo akuikultura-instalazioetara eramatea (gizentzekoetara barne), lehorreratzea, inportazioak, garraioa, eraldaketa, merkaturatzea eta arrantzako eta akuikulturako produktuak biltegitratzea.

Bestalde, 2017ko apirilaren 7an, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 (EB) Erregelamendua argitaratu zen. Erregelamendu horrek arauak ezartzen ditu estatu kideetako agintaritza eskudunek kontrolak egiteari buruz, elikagaien eta elikagaien segurtasunaren arloko arauak eta elikagaien (arrantzako eta akuikulturako produktuak barne) ekoizpen, eraldaketa eta banaketaren edozein fasetako osotasun eta osangarritasuna betetzen direla egiaztatzen.

Horrek esan nahi du arrantza-agintariak neurri egokiak hartu behar dituztela, beharrezkoak diren finantza-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak esleitu behar dituztela, eta arrantza-politika bateratuaren eta elikagaien segurtasunaren aplikazio-eremuan sartzan diren jardueren kontrola, ikuskapena eta betetzea bermatzeko beharrezkoak diren egitura administratibo eta teknikoak sortu behar dituztela; era berean, beren agintari eskudunei eta eragileei beren eginkizunak betetzeko bitarteko egoki guztiak eman behar dizkiete.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Helburu horrekin, martxoaren 29ko 67/1982 Dekretuak —Arrantza, Itsaskigintza eta Akuikulturako Landareen Ikuskaritza Zerbitzua Antolatzekoak— ikuskapen-zerbitzu bat sortu eta arautu zuen. Zerbitzu horren aurreikuspenek bat etorri behar dute egungo lege-ikuspegiekin. Horregatik, EGABek egokitzat jotzen du araua; eta haren edukia ikusita, egokia dela uste du.

16/19 IRIZPENAREN JARRAIPENA, Euskadiko dokumentu-ondareari eta artxibo-sistemari buruzko legearen aurreproiektua

Kulturako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 20an Euskadiko Dokumentu Kudeaketa Integralaren eta Dokumentu Ondarearen Lege Proiektua onartu zuen, eta Euskadiko EGABek 2019ko azaroaren 6an eman zuen irizpena.

Arauaren xedea da erantzuna ematea, gizarte digitalaren testuinguruan, dokumentuen kudeaketa integralak dituen erronkei, artxibo-antolaketa egokitu eta sendoa behar baitute. Horretarako, Lege Proiektuak honako hauek arautzen ditu: titulartasun publikoko dokumentuen kudeaketa integrala, horien tratamendua eta horiek artxiboetan antolatzea; Euskadiko dokumentu-ondarea konfiguratzeko, babestea eta zaintzea; Euskadiko artxibo-sistemaren egitura, antolaketa eta kudeaketa; Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten artxibo pribatuen titularren eskubideak eta betebeharrak; herritarrek sarbidea izatea Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistemetan gordetzen diren titulartasun publikoko dokumentuetara eta Euskadiko dokumentu-ondarera; eta zehapen-arabidea.

Irizpena eman zaion testua, onartu deneko legegintzaldiaren aurreko legegintzaldian egina, aldatu egin da behin betiko bertsioan. Hala ere, talde berriak testua berrikusi badu ere, aurreko testuaren edukiari eusten dio funtsean; eta Batzordeak horren inguruko irizpena eman zuen. Irizpenak Gobernu Kontseiluak onartutako behin betiko testuan duen eraginari dagokionez, honako gogoeta hauek jaso dira.

Legearen xedeari buruzko xedapenak, Euskadiko dokumentu-ondarearen konfigurazioarekin eta babesarekin batera, ondare horren babesa jaso du. Lege Proiektuak merkataritza-jardura bertan behera utziz gero zerbitzu-emailek sortutako titulartasun publikoko dokumentazioarekin nola jokatu azaltzen du; eta kasu hori zabaldu egingo da zerbitzuak emateko jardura bertan behera uztea ere kontuan hartzeko, arrazoia edozein dela ere. Dokumentazioa entregatzeari dagokionez, hartzailea ez da izango zerbitzu-emailea atxikita dagoen erakunde publikoa, haren zerbitzuak jasotzen zituen erakunde publikoa baizik.

Lehetasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen erregulazioari dagokionez, formulazioa berrikusi da, hiru kategoria juridiko bereiztearen inpresioa saihesteko. Izan ere, berez bi baino ez dira aurreikusten: kostu bidezko bizien arteko eskualdaketak, borondatez egindakoak, edo ondarea betearazteko prozedura batetik eratorritakoak. Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko epea zenbatzen hasten den unea aldatu da.

Era berean, Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistemetan gordetako titulartasun publikoko dokumentuetara eta Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuetara pertsona fisiko baten izenean sartzeko eskubiderako aukera ere onartzen da, jatorriz baztertuta egon arren.

Aruak esplizituki jaso du zein kasutan ukatu edo murriztu ahal izango den dokumentuak eskuratzeko eskubidea. Jatorrizko testuak adierazten zuen hori indarrean dagoen araudia aplikatuz egin zitekeela; eta EGABek alegatu zuen eskuratzeko eskubidea ukatzeko edo murrizteko kasuak berariaz jaso behar direla arauaren testuan, legearen babesean eskuratzeko eskubidea erabili nahi duten herritarrek aukera izan dezaten legezko testuan bertan eskubide hori ukatzeko edo murrizteko kasuak ezagutu eta egiaztatzeko.

Azkenik, "delitu-zantzuak" adierazpena eta faltak ere kendu egin dira, Zigor Kodea aldatzeko 1/2015 Lege Organikoak indargabetu baitzituen.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

LEGE PROIEKTU
ETA
DEKRETUAK,
GOBERNU
KONTSEILUAK
ONARTUTAKOAK

2021

4/20 IRIZPENAREN JARRAIPENA, landa-ingurunearen garapeneko Lege-Aurreproiektuari buruzkoa

021eko ekainaren 29an onartu zuen Eusko Jurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren proposamenez, Landa Garapenerako Lege Proiektua. Proiektu horren inguruan aurretik Batzorde honek irizpena eman zuen, 2020ko otsailaren 12ko Osoko Bilkuran.

Arau honen helburua da EAEko landa-ingurunearen garapen jasangarrirako jarduerak gidatuko dituen arau-esparrua arautzea eta ezartzea (era horretan, lurraldearen gainerakoarekiko berdintasunean jarriko da herrialdearen garapenean eta kohesio ekonomiko, sozial eta lurralde mailako kohesioaren funtsezko faktore gisa). Horrez gain, EAEko landa-eremuetan politika sektorialak aplikatzeko orduan, gobernantza eta erakunde arteko lankidetzeta-mekanismoak ezartzea, lurralde-garapenaren eremuan ekintza publiko koordinatua eta osagarria lortzeko.

Jarraipena:

Onartutako testuak bere edukiaren funtsa aldatzen ez duten aldaketak izan ditu; nahiz eta, Batzorde honi proposatutako testuari dagokionez, Landa Garapenerako Euskal Sarearen irudia sartu den (16. artikulua). Irizpenean, EGABek positiboki baloratu zuen ekimena, eta gogoeta orokor eta espezifiko ugari egin zituen haren artikuluei buruz. 30 proposamen zehatz baino gehiago izan dira eta horietatik erdiak hartu dira kontuan.

Kontuan hartu diren EGABen proposamenen artean daude Legearen xedearen idazketa berrikustea eta artikuluen hainbat puntutan aipatzea landa-garapeneko politiken ondorioz sortzen den enpleguak egonkorra eta kalitatezkoa izan behar duela. Era berean, landa-eremuan biztanleria finkatzeak duen garrantziari buruzko aipamen bat gehitu da. Azkenik, landa-garapenaren arloko jarduketan finantzaketa instituzionalari dagokionez, EBk ezarritako gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-adierazleak nahitaez bete behar direla aipatzen da.

5/20 IRIZPENA JARRAIPENA, Euskal Autonomia erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako arrantza turismoari eta arrantza erakustaldiei buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa

Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2021eko maiatzaren 25ean onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako arrantza turismoari eta arrantza erakustaldiei buruzko Dekretua; Euskadiko EGABek horren inguruko irizpena eman zuen 2020ko otsailaren 26an.

Arauren helburua da itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin erabat edo partzialki lotutako jarduerak arautzea arrantza-sektorearen jarduera osagarri gisa, arrantza-sektorea osatzen duten pertsonen errentak hobetu edo osatu ahal izateko. Hala, arauaren aplikazio-eremuan aurreikusitako jarduera zehatz gisa hartzen ditu arrantza turismoa eta arrantza erakustaldia. Diziplina horien izaera ez da soilik arrantzakoa, turismoari, tradizioei eta kulturari lotutako hainbat dimentsio baitituzte.

Gobernu Kontseiluak azkenean onartutako testuari buruz Irizpenak izango duen eraginak barne hartzen du.

Batzordeak egindako proposamenak sartzeari buruzko erreferentzia sartzeko. Arau berriaren xedeei beste hau ere gehitu zaie: arrantza-produktuez eta itsas jarduerari lotutako oroitzapen materialez gain, gai berari buruzko dibulgaziozko materiala eskuratzea erraztea.

3. artikulua, "Definizioak" izenekoak, "Aplikazio-eremua" izena hartu du, haren edukia izenburu horri

gehiago baitagokio. "Arrantza erakustaldia" kontzeptua argitu egin da, definizioan zehaztu baita kontraprestazio ekonomikoaren bitartez arrantzaren jarduera osagarria dela; baita "arrantza- eta akuikultura-turismoa" terminoa ere.

Dekretuak barne hartzen du arrantza turismoko jarduerak egiteko eta jarduera hasi aurreko jakinarazpena egiteko beharrezkoa den erantzukizunpeko adierazpena betetzeko eskatzen den aseguruaren berariazko tipologia.

Arrantza turismoko jardueretan eta arrantza erakustaldietan aritzen diren arrantza ontzien, pertsonen eta enpresa edo erakundeen erregistroari dagokionez (Dekretuak sortu du erregistro hori), haren funtsezko ezaugarrien erregulazioa sartu da, erregelamendu bidezko garapenean xehetasun gehiago emateko aukera alde batera utzi gabe.

6/20 IRIZPENAREN JARRAIPENA, hutsik dauden etxebizitzak arautzen dituen eta horiek benetan okupatuz beren funtzio soziala betetzeko neurriak ezartzen dituen Dekretu-Proiektuari buruzkoa

2021eko ekainaren 8an onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren proposamenez, hutsik dauden etxebizitzak arautzeko eta horiek benetan okupatuz beren funtzio soziala betetzeko neurriak ezartzeko Dekretu Proiektua; Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Araozetarako Batzordeak horren inguruko Irizpena eman zuen 2020ko azaroaren 16ko Osoko Bilkuran.

Arauren xedea da Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 56. artikulua erregelamendu bidez garatzea, eta hutsik dauden etxebizitzak eta horiek benetan okupatzeko neurriak hartzea arautzea. Besteak beste, honako hauek arautzen ditu Dekretuak: hutsik dauden etxebizitzak lege-ondorioetarako deklaratzeko justifikatzen duten kasuak; hori egiaztatzen duen aurretiazko administrazio-prozedura eta, ondoren, hutsik dauden etxebizitzaren erregistro autonomikoan inskribatzea; etxebizitzaren kanona likidatzea eta biltzea; eta alokairua sustatzeko neurriak, hala nola nahitaezko alokairuaren ezarpenaren irudia eta hutsik dauden etxebizitzaren nahitaezko desjabetzea funtzio soziala eta kontserbatzeko eta birgaitzeko betebeharra betetzen ez badira.

Aipatu behar da irizpena egin zaion testuak honako proposamen hauek jaso dituela:

- Hutsik dagoen etxebizitza deklaratzeko prozeduraren izapidetzearen esparruan, ezabatu egin da EGABek gehiegizkotzat jo zuen xedapena, etxebizitza okupatu gabekotzat hartzea neutralizatu ahal izateko etxebizitza bat okupatzeko hain epe luzea (sei hilabetekoa) eskatzeari buruzkoa.
- Sei hilabetetik hiru hilabetera murriztu da okupatu gabeko etxebizitza bat saltzeko edo alokatzeko eskainita egon behar duen aldia, okupatu gabe egotearen justifikazio-arrazoitzat jo ahal izateko eta hutsik dagoen etxebizitza deklaratzeko prozedura hastea eragozteko.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

LEGE PROIEKTU
ETA
DEKRETUAK,
GOBERNU
KONTSEILUAK
ONARTUTAKOAK

2021

7/20 IRIZPENAREN JARRAIPENA, abenduaren 23koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, Batzorde honek 2020ko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran irizpena eman ondoren.

Hasierako dekretu arautzaileari (ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua) hainbat aldaketa egin zaizkio aurretik. Proposamen berriaren arabera, denbora-epe berri bat ezarri behar da baldintzak betetzeko ezarritako epea amaitzen denean; baldintza horietako batzuk berrikusi egin behar dira, horien aplikazioa aztertu ondoren; eta edukia egokitu egin behar da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan berrira.

Onartutako testuak ez zuen aldaketarik izan. EGABek, bere Irizpenean, zenbait alderdi aipatzen zituen; bere ustez, horiek sartuta, Dekretua hobetu egin liteke.

1/21 IRIZPENA JARRAIPENA, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa

2021eko uztailaren 27an Gobernu Kontseiluak Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Proiektua onartu zuen.

Irizpenak Lege Proiektuaren behin betiko bertsioan duen eraginari dagokionez, Batzordeak egindako proposamen hauek jaso dira.

Legearen xedean eta helburuan, memoria soziala edo kolektiboa sartu da; eta frankismo garaiko jazarpen- edo indarkeria-arrazoen zerrendan, legearen esparruaren barruan, arrazoi sindikalak. Hartzaileen artean sartu dira langileen lan-eskubideak defendatzeagatik jazarpena eta errepresioa jasan zuten pertsonak, hartzaile gisa lege berriaren esparruan berariaz aintzat hartuko direnak.

Legearen printzipio gidarien artean, "oinarrizko askatasunak" adierazpena "funtsezko askatasunak" adierazpenarekin ordeztu da, arautzen den gaia Espainiako Konstituzioaren I. Tituluaren ("Funtsezko eskubide eta betebeharrak") edukiekin lotzen baita. Bidezkotzat jotzen da biktimen gogobetetze morala; haien ohorearekin batera, Lege Proiektuak jasotako ziurtagiriak birgaitu nahi duena.

Proiektuak "biktima"ren definizio bat jasotzen du, EGABek proposatu zuen bezala; eta bertan argi geratzen da baldintza hori hartzaile gisa identifikatutako pertsona eta kolektiboei bakarrik dagokien ala haien senideak ere barne hartzen dituen.

Euskadin Gerra Zibilean eta diktadura frankistan desagertutako pertsonak aurkitzeko eta identifikatzeko (eta baita, ahal den neurrian, gorpuzkiak berreskuratzeke eta identifikatzeko ere) Gogora-Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Euskal Institutuari esleitutako zereginari dagokionez, modu errealistagoan birdefinituta geratzen da, bere esku dauden edo eskumenekoak dituen neurriak eta jarduerak barne hartuta.

Memoria Historikoaren lekuei, guneei eta ibilbideei dagokienez, Lege Proiektuak horien hedapena ere jaso du.

Azkenik, Gogora Institutuaren Jarduera Planari buruzko xedapena berrikusi egin da; eta, EGABek ere proposatzen zuen bezala, lau urteko plan baten alde egin du, legegintzaldiaren hasiera alde batera utzita, Batzordeak uste baitzuen Gogora Institutuari egonkortasun eta independentzia handiagoa ematen diola.

3/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, industria garatzeko eta nazioartekotzeko 2021-2024 planari buruzkoaren jarraipena

2021eko uztailaren 20an Gobernu Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Plana onartu zuen; Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak horren inguruko irizpena eman zuen.

Eusko Jaurlaritzak onartutako testua EGABi kontsulta-izapidean bidali zitzaion bera da.

5/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, 2024rako ekonomia zirkularraren eta bioekonomiaren planari buruzkoaren jarraipena

2021eko urriaren 13an Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024rako Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana onartu zuen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta.

Irizpenean, EGABek positiboki baloratu zuen ekimena, eta gogoeta orokor ugari eta berariazko gogoeta labur batzuk egin zituen haren edukia berrikusteko.

Horietatik, hainbat hartu dira kontuan. Bereziki nabarmendu dute VISESA Planaren jarraipen operatiborako Zuzendaritza Batzordean sartzeko proposamena; izan ere, Irizpenak adierazten duen bezala, eraikuntzaren sektorea funtsezkoa da ekonomia zirkularrerako.

Era berean, kontuan hartu da hiri-hondakinetan materia organikoaren gaikako bilketa aipatzeko proposamena, konposta egiteko materia organikoaren berreskurapena indartzeari buruzko jardueraildoan, elikagaiak xahutzearen aurka borrokatzeko duen garrantzia kontuan hartuta (Planaren 8. jardueraildoa).

6/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, 2021-2024 aldirako energia trantsiziorako eta klima aldaketarako planari buruzkoaren jarraipena

Plana Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko urriaren 26an. Onartutako testuak aldaketak izan zituen jasotako ohar eta alegazioen ondorioz, bai eta idazketan izandako estilo-aldaketan ondorioz ere. EGABek, bere Irizpenean, zenbait alderdi aipatzen zituen; bere ustez, horiek sartuta, Plana hobetu egin liteke.

Horien artean, egoeraren diagnostikoan alderatzeko zenbait alderdi sartzeari buruzko iradokizuna aipatu behar da. Horrela, hobeto dakigu EAE zein egoeratan dagoen Estatuarekin eta EBrekin alderatuta; eta zehatz dakigu gure ahaleginak gainerakoak baino txikiagoak, berdinak edo handiagoak izaten ari diren.

Kontzeptu batzuk egungo terminologiara egokitzeari dagokionez egindako eskaera ere kontuan hartu da. Esate baterako, testuan zehar “karbonoan neutroa”z hitz egiten da, eta ez “karbono gutxikoa”z.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

LEGE PROIEKTU
ETA
DEKRETUAK,
GOBERNU
KONTSEILUAK
ONARTUTAKOAK

2021

8/21 IRIZPENAREN JARRAIPENA, kiroleko dopinaren aurkako legearen bigarren aldatetaren lege aurreproiektuaren jarraipena

2021eko abenduaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren proposamenez, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarren aldiz aldatzeko Lege Proiektua onartu zuen.

Onartutako testua ia ez da aldatu Batzorde honi proposatutakoarekin alderatuta. EGABek, bere irizpenean, positiboki baloratzen zuen ekimena; eta gogoeta orokorrak baino ez zituen egin. Berariazko gogoetarik ez dagoenez, ez da egokia horren eragina ebaluatzea.



EAEko 2020ko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko memoria aho batez onartu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Kontseiluaren Erregelamenduak ezarritako epeen barruan.

Hainbat ataletan banatuta, “2020ko Memoria Sozioekonomikoa”k, besteak beste, egoera ekonomikoa, enplegua eta lan-harremanak, bizi-kalitatea, hezkuntza edo gizarte-babesa aztertu eta horien inguruan hausnartzen du. Iturri ofizialetatik datozen EAEko egoera sozial eta ekonomikoari buruzko txosten eta datu estatistikoen bilduma da; eta EGABek aztertu, kontrastatu eta baloratu egiten du, dokumentuan jasotzen dituen zenbait gogoeta adostu arte.

2020. urtea COVID-19aren pandemiak baldintzatu du. Larrialdiak ahalik eta gehien tenkatu zuen osasun-sistema, eta ahuleziak azaldu zituen gizarte-zerbitzuen sisteman; hala eta guztiz ere,

Gizarte Babeseko Sistemak bere estaldurari eutsi zion, eta orain funtsezkoa da sistema horren iraunkortasunari eta ekitateari buruz eztabaidatzea, pandemiak eragindako errealitate berrietara eta gero eta premia handiagoetara egokituta. Joan den ekitaldian enplegu-galera handia izan zen —heine handi batean, ABEEek arindu egin zuten, aurrekaririk gabeko laguntza publikoari esker—; eta orain funtsezkoa da kaltetutako sektore, enpresa eta pertsonen arreta ematea egoera gainditzeko. Erronka aldakorrek dira, eta agintariek beren jarduerak egokitu egin behar izan dituzte; hori egiten jarraitu beharko dute krisi hau atzean utzi arte. Ikuspegi horrekin, EGABek uste du Next Generation funts europarrak funtsezkoak direla suspertzen laguntzeko, aurrerapenaren ikuspegitik, eta ez BPGren hazkundearen ikuspegitik soilik.

DEMOGRAFIA

- ⇒ Hildakoen zifra argitaragabeek eragin demografiko gogorra izan dute; hori dela eta, EGABek beharrezkotzat jotzen du epidemiaren eragina gizarte-kalteberatasunaren arabera aztertzea, etorkizunean gerta litezkeen gorabehereri begira.
- ⇒ Migrazio-saldo positiboek EAEko eta EB osoko hazkunde natural negatiboa konpentsatu zuten 2020an. Hala eta guztiz ere, Memoriak ohartarazten du Euskadik erronka demografiko handia duela aurrean, eta, beraz, ezinbestekoa dela demografia- eta migrazio-eredu orokorra izatea, politika publikoak zeharka eta koordinatuta bideratu ahal izateko.

EKONOMIA

- ⇒ Pandemiaren intentsitateak bat-batean uzkuritu zuen jardura ekonomiko urte horretan, bake-eszenatoki baterako ikaragarritzko maila batean, eta garai modernoetan aurrekaririk gabeko atzeraldi ekonomiko sakona eragin zuen; izan ere, BPG -% 3,3 jaitsi zen termino errealetan munduan, -% 6,6 Eurogunean, -% 10,8 Espainian eta -% 9,5 EAEn. Hala ere, inpaktua okerragoa izan zitekeen ondorio negatiboak arintzea ahalbidetu duten politika ekonomikoen erantzunik gabe.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

- ⇒ 2020ko otsailetik abendura 1.371 enpresa galdu ziren Euskadin; eta urte arteko datuei dagokionez, beherakada handiagoa izan zen Estatuan (-% 3,3) EAEn (-% 2,4) baino. Eskariari (bai barnekoa bai kanpoko) dagokionez, negatiboak izan ziren BPGren hazkunderari egindako ekarpenean. Eskaintza-agregatuek urte arteko jaitsierak izan zituzten: -% 11,8 industria eta energian, -% 13,3 industria-produkzioaren indizean, -% 9,5 eraikuntzan eta -% 8,5 zerbitzuetan. Pandemiak portaera kontrajarririk eragin zituen eskarian: kontsumo pribatuak behera egin zuen eta kontsumo publikoak gora egin zuen; eta beste horrenbeste eskaintzan: merkatuko zerbitzuak jaitsi egin ziren eta merkataritzakoak ez ziren zerbitzuak igo egin ziren (urteko igoera positiboak izan baitziren urte osoan zehar Administrazio Publikoan, Hezkuntzan, Osasunean eta Gizarte Zerbitzuetan).
- ⇒ Industria jarduerak: metalurgia (-% 20,1) eta garraio materiala (-% 15,2) azpisektoreek batez bestekotik gorako jaitsierak izan zituzten industria-ekoizpenaren indizean (-% 13,3). Makineria eta ekipoa -% 7,3 jaitsi ziren; eta produktu farmazeutikoak, aldiz, % 10,1 gehitu.
- ⇒ Zerbitzuen sektorea: “Merkataritza, ostalaritza eta garraioa” agregatuaren jardueretan jaitsiera handiak izan ziren, jarduera eten edo murriztu egin baitzen.
- ⇒ Garraio-azpiegiturak. Deigarria da Gasteizko aireportuan salgaien trafiko-bolumena mantendu izana jarduera-murrizketak eta -jaitsierak ezaugarri izan dituen urtean. EGABek nabarmendu du masa kritikoa dagoela azken jarduera-sektore horretan, gero eta pisu handiagoa hartzen ari dena merkatu globalean.
- ⇒ Finantza publikoak: diru-bilketaren beherakadak finantza publikoen susperraldia eta zorpetzearen murrizketa eten zituen. Batzordearen iritziz, zerga- eta aurrekontu-politikak funtsezko zerbitzu publikoak (batez ere osasuna eta gizarte-zerbitzuak, baina baita hezkuntza eta, jakina, ikerketa ere) hobetzean jarri behar du arreta orain.
- ⇒ Enplegu publikoari dagokionez, txostenak, beste urte batez, EAEko administrazio publikoetan bitartekotasuna eta behin-behinekotasuna zuzentzeko beharra berresten du.
- ⇒ Energia. EGAB kezkatuta dago autonomia erkidegoaren kanpoko energia-mendekotasun handiarekin eta energia berriztagarrietan oinarritutako ekoizpen murriztarekin.
- ⇒ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza. Laugarren urtez jarraian igo da I+Gko gastua termino absolutuetan, baina oraindik urrun dago Europako % 3ko helburutik. Memoriak inbertsio hori emaitzetara eramateko dauden zailtasunak egiaztatu ditu; eta gogorarazi du EAEko enpresek (bereziki enpresa txiki eta ertainek) hobetzeko aukera zabala dutela oraindik (zibersegurtasuna, adimen artifiziala, robotikaren erabilera...), eta eremu horietako politika publikoetan sakontzeko eskatu du.

EMPLEGU ETA LAN HARREMANAK

- ⇒ 2020k eten egin zuen Euskadiko enpleguaren susperraldia, 2008ko krisiaren aurreko okupazio-mailara hurbiltzen ari zenean. Hala ere, galera BPGrena baino askoz ere txikiagoa izan zen, enpresek ABEEEak masiboki erabiltzeagatik, enpleguari eustea lehenestea ahalbidetu baitzuen, aurrekaririk gabeko laguntza ekonomiko publiko bati esker; dena den, etorkizunerako zalantza asko sortzen ditu. Hala eta guztiz ere, ABEEEei esker, hasiera batean egoeraren araberakoa den egoera baten egiturazko eragin negatiboa ekidin da.

- ⇒ 2020k eten egin zuen Euskadiko enpleguaren susperraldia, 2008ko krisiaren aurreko okupazio-mailara hurbiltzen ari zenean. Hala ere, galera BPGrena baino askoz ere txikiagoa izan zen, enpresek ABEEEak masiboki erabiltzeagatik, enpleguari eustea lehenestea ahalbidetu baitzuen, aurrekaririk gabeko laguntza ekonomiko publiko bati esker; dena den, etorkizunerako zalantza asko sortzen ditu. Hala eta guztiz ere, ABEEEei esker, hasiera batean egoeraren araberakoa den egoera baten egiturazko eragin negatiboa ekidin da.
- ⇒ 2020an izandako enplegu-galera gehienbat gizonezkoena izan zen; eta bereziki eragin zien ostalaritzari eta manufaktura-industriari, EAeko ekonomian garrantzi handiko jarduerak diren aldetik.
- ⇒ EGABek defendatzen du Enplegu Politika Aktiboak orain inoiz baino garrantzitsuagoak direla eta gazteen behar espezifikoari erantzun behar dietela; halaber, lehenetsuna eman behar zaie iraupen luzeko langabeziak eragindako pertsonari.

- ⇒ **Bizi-baldintzak.** EAE posizio positiboan mantendu zen bizi-kalitatearen nazioarteko rankingetan, baina adierazle batzuek 2018an eta 2019an ohartarazi zuten narriadura bat izango zela —pandemiak 2020an sakondu egin zuena—, nahiz eta hori oraindik ez den islatu aztertutako kopuruetan.
- ⇒ **Gizarte-babesa.** Krisi pandemikoa gorabehera, EAeko gizarte-babeseko sistemak bere estaldurari eutsi zion 2020an, Europako herrialde nagusien pareko mailetan eta Espainiako batez bestekoaren gainetik.
- ⇒ **Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema:** 2020an gastua eta unitate hartzaileen kopurua hazi egin ziren, pandemiak eragindako premien hazkundearen ondorioz. Gastua 483,9 milioi eurokoa izan zen (2019an baino % 6 gehiago); eta 2020ko abenduan 54.747 unitatek (aurreko urtean baino % 4,4 gehiagok) jaso zuten DSBE. Batzordearen iritziz, sistema eskakizunen gehikuntzari erantzuten ari zaio, araudi erregulatzailerak diseinatu zuen moduan.
- ⇒ **Sistemaren iraunkortasuna:** Beste urte batez, EGAB kezkatuta agertu da alor horretan, eta uste du 2020ak are nabariago jarri duela gure herrialdeko gizarte-babeseko sistemak behar duen hobekuntza. Hobekuntza horren helburua da sistema horren iraunkortasuna bermatzea eta prestazioak errealitate berrietara eta gure gizarteak dagoeneko bere gain hartutako erronkei pandemiak gehitu dizkien beharrian gero eta handiagoetara egokitzea.



- ⇒ **Hezkuntza:** Aurreko edizioetan bezala, Memoriak azpimarratzen du hezkuntza-aukera guztiei prestigioa eman behar zaiela, eta agerian uzten du generoaren araberako nahi ez den arrakala bat dagoela eta horren ondorioz emakumeen parte-hartzea txikiagoa dela arlo zientifiko-teknikoetan eta askoz handiagoa dela pertsonen zaintzan, osasunean eta osasungintzan; horregatik, ikasleak eta familiak sensibilizatzen jarraitzeko eskatzen du. Gainera, beharrezkotzat jotzen du hezkuntza-sistemak pandemiaren aurrean izandako erantzuna aztertzea; etorkizuneko erantzunei begira, izan daitezkeen akatsak eta ongi egindakoak hautemateko.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

- ⇒ **Kultura:** Batzordeak egiaztatu duenez, EAEko biztanleek joera txikiagoa dute Espainiako batez bestekoak baino praktika aktibo artistikoak egiteko; eta behera egiten dute kulturako enpresek eta enpleguak arlo horretan, Estatuan ez bezala. Halaber, harrigarria iruditzen zaio, errenta erabilgarri handiena duen erkidegoa den arren, EAEk hamaikagarren postua izatea autonomia-erkidegoen rankingean, etxeko batez besteko gastuari dagokionez; eta pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, Estatuko batez bestekoaren azpitik egotea eta hamargarren postuan egotea.
- ⇒ **Natura-ingurunearen egoera:** berotegi-efektuko gasen isurketek behera egin zuten 2018an (eskuragarri dagoen azken datua); eta BPGren unitate bat sortzeko sortutako isurketek ere behera egin zuten, oraindik EB-28ko batez bestekoaren zertxobait gainera dauden arren. Memoriak errepide bidezko garraioarekin, bizitegi-sektorearekin eta zerbitzuen sektorearekin lotutako emisioen gorakada azpimarratzen du.
- ⇒ **Osasuna eta osasun-sistema:** pandemiak ahalik eta gehien tenkatu zuen EAEko osasun sistema, muturreko egoera baten aurrean zentzuz erantzuteko gai izan dena. Batzordeak erantzunak ebaluatzea eta oztopoak adieraztea eskatu du, etorkizunean izan daitekeen antzeko egoera baten aurrean prest egoteko; eta COVID-19arekin zuzenean lotutako bi gai zaintzeko beharra adierazi du: herritarren osasun mentala (neke pandemikoa) eta COVID iraunkorra duten pertsonentzako arreta egokia. EGABen ustez, funtsezkoa da digitalizazioa osasun-sistema prebenitzeko eta hobetzeko; bai eta telemedikuntzak eta teleterapiak gero eta protagonismo handiagoa izatea ere, aurrez aurreko arretaren osagarri baitira. Era berean, nabarmendu du pandemiak agerian utzi dituela gizarte-zerbitzuen sistemaren ahuleziak, adinekoen egoitzetako giza drama larria kontuan hartuta; izan ere, horien arau-garapena egiteke dago oraindik, hein handi batean.
- ⇒ **Etxebizitza:** hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kopuruak behera egin zuten 2020an; eta birgaitzeak, neurri batean behintzat, jarduerari eutsi zion. Alokairuko etxebizitzaren eskaintza berriro murriztu zen urte horretan, eta Memoriak egiaztatzen du babestutako etxebizitzaren kopurua eskasa dela dagoen eskarirako; horregatik, kezkarria da horrek kolektibo zabaletan (esaterako, gazteengan eta baliabide gutxien dituzten pertsonengan) duen eragina.

OSOKO BILKURA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak **hogeitabat** bilera egin zituen, eta horietako hamabost, ezohiko izaeraz. Horietan, hamabost irizpen onartu ziren: 2020ko Jardueren Memoria, 2020ko EAEko Memoria Sozioekonomikoa eta 2020ko urteko kontuak eta 2022eko aurrekontuak.

BATZORDE IRAUNKORRA

2021an, Batzorde Iraunkorra **best aldiz** bildu zen. Bestek beste, honako gai hauek jorratu zituen: 2020ko Jardueren Memoria, 2020ko Memoria Sozioekonomikoa eta 2020ko urteko kontuak eta 2022eko aurrekontuak, 2020ko auditoria-txostena eta aurrekontuaren hiruhileko exekuzioei buruzko aurrekontu-kontrola.

SOZIAL GARAPENERAKO BATZORDEA

Sozial
Garapenerako
Batzordea zortzi
aldiz bildu zen
2021ean

- | | |
|------------|---|
| Maiatzak 3 | <p>Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.</p> <p>Batzordeak edukiak eztabaidatu zituen, berariazko oharren atalean zenbait aldaketa sartzea erabaki zuen, eta irizpen-proiektua egin zuen Osoko Bilkurari aurkezteko.</p> |
| Maiatzak 6 | <p>EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxiengo bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.</p> <p>Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.</p> |
| Irailak 6 | <p>Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Gizarteratze sailburuordeak, agerraldia egin zuen, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Aurreproiektua aurkezteko.</p> <p>Arantza González, Lan eta Enplegu Saileko aholkulari juridikoa, lagun zuela.</p> |
| Irailak 10 | <p>Kiroleko Dopinaren aurkako Legearen bigarren aldaketaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.</p> <p>Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.</p> |

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Sozial
Garapenerako
Batzordea zortzi
aldiz bildu zen
2021ean

Irailak 24 Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.

Luze eztabaidatu ondoren, aztertu beharreko aurreproiektua luzea zenez, gogoeta orokor berri bat eta hainbat berariazko gogoeta sartzea erabaki zen, bai eta zenbait berariazko aldaketa ere; eta irizpen proiektua egiteko adostasuna lortu zen.

Urriak 7 Gobernantza soziosanitarioaren Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.

Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.

Azaroak 2 Lehenik eta behin, honako irizpen hauen jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:

6/2020 IRIZPENA, azaroaren 16koa, hutsik dauden etxebizitzak arautzen dituen eta haien funtzio soziala benetan okupatuz betetzeko neurriak ezartzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

1/2021 IRIZPENA, maiatzaren 7koa, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.

Ondoren, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.

Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.

Abenduak 1 Bileraren helburua hiru irizpen aurreproiektu eztabaidatu eta onartzea izan zen:

Euskadiko Osasun Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa. Horren atalak xehetasunez aztertu ondoren, erabaki zen zenbait aldaketa egitea gogoeta orokor eta berariazkoetan, eta irizpen-proiektua egitea Osoko Bilkurari aurkezteko.

Adikzioen eta Drogamenpekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatik zehapenak ordeztzeko sistema arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa. Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.

Garapenerako lankidetzeta-programetarako laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa. Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.

EKONOMIA GARAPENERAKO BATZORDEA

Ekonomia
Garapenerako
Batzordea lau
aldiz bildu zen
2021ean

- Ekainak 17** Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Planaren proiektuaren Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.
- Atalak aztertu ondoren, zenbait aldaketa adostu ziren, hala gogoeta orokorretan nola berariazkoetan; eta irizpen-proiektua egiteko beharrezko akordioa lortu zen, EGABen Osoko Bilkurari aurkezteko.
- Uztailak 27** Bileraren helburua hiru irizpen aurreproiektu eztabaidatu eta onartzea izan zen:
- Kable bidezko garraioaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektuari buruzkoa. Aurreproiektua aztertu ondoren, gogoeta orokorren testuari bost aldaketa egitea erabaki zen; eta kable bidezko garraioa arautzeko berariazko arau baten egokitasunari buruzko balorazioa eskatzen duen ondorioa adieraztea adostu zen.
- 2024rako Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruzkoa. Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planari buruzko Irizpenaren Aurreproiektua eztabaidatu zen. Aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.
- Irailak 7** Mugikortasun Jasangarriaren Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.
- Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.
- Abenduak 14** Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.
- Aurreproiektu horri egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak irizpen-proiektua egin zuen, aho batez; eta EGABen Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

MEMORIA SOZIEKONOMIKOAREN BATZORDEA

Batzorde hau
bederatzi aldiz
bildu zen
Memoria
Sozioekonomikoa
lantzeko

Urtarrilak 15	2020ko Memoria Sozioekonomikoaren lanak abian jartzea. Zerbitzu teknikoek egindako aurkibidearen eta lan-egutegiaren zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, aho batez egin ziren aurkibidearen proiektua —Osoko Bilkurari bidali zitzaiona—, eta Batzordearen 2021erako lan-egutegia.
Martxoak 15	MSE 2020ren lehen zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Ondorioz, aho batez onartu ziren kapitulu hauek: I. Demografia EAEn; II.6. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; eta IV.1. Bizi-baldintzak.
Martxoak 26	MSE 2020ren bigarren zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, V.2. kapituluak aho batez onartu ziren.
Apirilak 23	MSE 2020ren hirugarren zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, aho batez onartu ziren kapitulu hauek: II.5. Ekoizpen-azpiegiturak; II.7. Ekonomia soziala; IV.2. Gizarte-babesa; eta 3. Eranskina. Berpiztu programa.
Maiatzak 14	MSE 2020ren laugarren zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, kapitulu hauek aho batez onartu ziren: III. Enplegua eta lan-harremanak EAEn; eta V.1. Hezkuntza eta kultura.
Ekainak 7	MSE 2020ren bosgarren zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, aho batez onartu ziren kapitulu hauek: II.1. Kanpoko ingurune ekonomikoa; II.4. Sektore publikoa; eta V.4. Etxebizitza.
Ekainak 18	MSE 2020ren seigarren zirriborroaren eztabaida. Zerbitzu teknikoek egindako zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Emaita gisa, aho batez onartu ziren kapitulu hauek: II.4. Sektore publikoa (gogoetei zuzenketa egitea); II.8. Ekonomia: laburpena eta gogoetak; 2. Eranskina. Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda; eta 4. Eranskina. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa eta babesa 2020an.

Hartutako erabakietatik abiatuta, Batzordeak aho batez onartu zuen EAEko 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren Proiektua; eta, ondoren, EGABen Osoko Bilkurak berretsi zuen, 2021eko ekainaren 28ko bilkuran.

Uztailak 13

MSE 2020 aurkezteko proposamenaren eztabaida.

Zerbitzu teknikoek egindako PowerPointeko zirriborroari buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren, Memoriaren mezu nagusiak aintzat hartuta. Eraitza gisa, aho batez onartu zen aurkezpen hori, bai eta nabarmendu beharreko mezu nagusiak ere (bai MSE 2020ren aurkezpen instituzionaletan, bai aurreikusitako prentsaurrekoan).

Abenduak 9

2021eko Memoria Sozioekonomikoaren lanak abian jartzea.

Zerbitzu teknikoek egindako aurkibidearen eta lan-egutegiaren zirriborroei buruz jasotako proposamenak eta iritziak aztertu ziren. Eraitza gisa, aho batez egin ziren aurkibidearen proiektua —Osoko Bilkurari bidali zitzaiona—, eta Batzordearen 2022rako lan-egutegia.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

BATZORDE EGUTEGIA

urtarrila

AST	AST	AST	OST	OST
		1	2	3
6	7	8	9	10
O.B.	O.B.	MSE	16	17
O.B.	21	22	23	24
O.B.	28	29	30	31

otsaila

AST	AST	AST	OST	OST
1	2	3	4	5
8	9	O.B.	11	B.I.
15	16	17	18	19
22	23	O.B.	25	26

martxoa

AST	AST	AST	OST	OST
1	2	3	4	5
8	9	10	11	12
MSE	16	17	18	19
22	23	24	O.B.	MSE
29	30	31		

apirila

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
5	6	7	8	9
B.I.	13	14	O.B.	16
19	20	21	22	MSE
26	27	28	29	30

maiatza

AST	AST	AST	OST	OST
SGB	4	5	SGB	O.B.
10	11	O.B.	13	
17	18	19	20	21
24	25	26	27	28
31				

ekaina

AST	AST	AST	OST	OST
	1	2	3	4
MSE	8	9	10	11
14	15	O.B.		MSE
21	22	23	24	25
O.B.	29	30		

uztaila

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
5	6	7	9	10
12	MSE	14	15	16
19	20	21	22	23
26	EGB	28	29	O.B.

iraila

AST	AST	AST	OST	OST
			1	2
SGB	EGB	8	9	SGB
13	14	15	O.B.	17
20	21	22	23	SGB
27	29	30		

urria

AST	AST	AST	OST	OST
				O.B.
4	5	B.I.	SGB	8
11	12	13	14	O.B.
18	19	20	21	22
25	26	27	28	29

azaroa

AST	AST	AST	OST	OST
	1	SGB	3	4
7	8	9	10	O.B.
14	15	16	O.B.	18
21	22	23	24	25
B.I.	30			

abendua

AST	AST	AST	OST	OST
		1	SGB	3
6	7	8		10
13	EGB	15	16	O.B.
20	21	22	23	24
27	28	29	30	31

OSOKO BILKURA	21
B. Iraunkorra	5
S.G. Batzordea	8
E.G. Batzordea	4
MSE Batzordea	9

III. KAPITULUA JARDUERA INSTITUZIONALA

Urtarrilak 13

Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak EGABen Osoko Bilkuran parte hartu zuen EAEko 2021eko Aurrekontu Orokorren Proiektua aurkezteko.



Urtarrilak 14

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Batzordearen Osoko Bilkuran agerraldia egin zuen, bere Sailaren lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak azaltzeko.



Urtarrilak 20

Lehen lehendakariordearen eta Segurtasuneko sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Josu Erkoreka lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak bere Sailaren lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak aurkeztu zituen Batzordearen Osoko Bilkuran.



JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Urtarrilak 27

Osasun sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak EGABen Osoko Bilkuran bere Sailaren lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak azaldu zituen.



Urtarrilak 28

Sare Transnazional Atlantikoaren bilera

Sare Transnazional Atlantikoa modu telematikoa bildu zen “Espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketarantz” azterlanaren prestaketan aurrera egiten jarraitzeko.



Otsailak 3

LAN 21 Foroa

Emilia Málaga Euskadiko EGABeko presidenteak parte hartu zuen, Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarekin, Xabier Ochandiano Bilboko Udaleko Enplegu zinegotziarekin eta Susana Gómez Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu zuzendariarekin batera, LAN 21 Foroaren esparruan “Enplegua eta erakundeen zeregina” gaiari buruzko eztabaidan.



Otsailak 4

Sare Transnazional Atlantikoaren bilera

Atlantikoko Korridoreari buruzko Lantaldea telematikoki bildu zen, Atlantikoko Korridorearen ezarpenari buruzko eztabaidekin jarraitzeko.

Otsailak 10

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak Batzordearen Osoko Bilkuran agerraldia egin zuen, bere Sailaren lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak azaltzeko.



Otsailak 24

Hezkuntza sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak Batzordearen Osoko Bilkuran aurkeztu zituen lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak.



Otsailak 25

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak Batzordearen Osoko Bilkuran parte hartu zuen, bere Sailaren lanerako planak eta legegintzaldiko proiektuak aurkezteko.



JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Marxoak
11 eta 12

Euskadiko Langileen Batasun Orokorraren XIII. Kongresua

Euskadiko EGABeko presidentea UGT-Euskadiren XIII. Kongresuaren irekiera eta amaiera ekitaldian izan zen.

Martxoak 30

Autonomia-erkidegoetako EGABen bilera Espainiako EGABekin

EGABak telematikoki bildu ziren COVID osteko garaiko ekonomia, lan eta gizarte susperraldiari buruzko analisiak eta proposamenak lantzeko.

Martxoak 31

Sare Transnazional Atlantikoaren bilera

Atlantikoko Korridoreari buruzko Lantaldea berriro bildu zen espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketari buruzko lanekin jarraitzeko.

Apirilak 15

Gogora Institutuaren (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua) zuzendariaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Aintzane Ezenarro Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariak agerraldia egin zuen Batzordearen Osoko Bilkuran, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektua azaltzeko.

Apirilak 26

Beijing +25etik berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritarrera

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentek Beijinggo Ekintza Plataformak zer ekarri zuen, zergatik jarraitzen duen indarrean eta zer erronka dauden egiteko aztertzeko jardunaldian parte hartu zuen.



Maiatzak 12



Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia aurkeztu zuen EGABen Osoko Bilkuran.

Maiatzak 14

Industria sailburuordearen agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Javier Zarraonaindia Industria sailburuordeak Batzordearen Osoko Bilkuran agerraldia egin zuen Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Plana aurkezteko.



Ekainak
1 eta 2

Gaztela eta Leongo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eraketaren 30. urteurrena

Euskadiko EGABeko presidentek Gaztela eta Leongo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eraketaren 30. urteurrena ospatzeko ekitaldiaren bigarren jardunaldian parte hartu zuen; bertan "Bitartekaritza instituzionalen garrantzia" txostena garatu zuen.



Ekainak 3

Euskadiko CCOOren 12. Kongresua

Emilia Málaga Euskadiko CCOOren hamabigarren kongresuaren irekiera ekitaldian izan zen.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Ekainak 16

Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak EGABen Osoko Bilkuran parte hartu zuen Euskadi Next programaren bilakaera azaltzeko.



Abenduak 2

Sare Transnazional Atlantikoaren Konferentzia “Espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketarantz” txostenaren inguruan

“Espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketarantz” txostenaren barne-aurrezpena. Txosten hori azken bi urteetan egin da Sare Transnazional Atlantikoaren baitan.

Maiatzak 12

2020ko Memoria Sozioekonomikoa Lehendakariari aurkeztea

Emilia Málaga Euskadiko EGABeko presidentea Lehendakaritzan izan zen, Lorea Soldevilla erakundeko idazkari nagusiarekin eta Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikorako Batzordeko presidentearekin batera, Euskadiko 2020ko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko. Ekitaldian, Lehendakariarekin batera, honakoak egon ziren: Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua, Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburua eta Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.



Uztailak 23

2020ko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena Eusko Legebiltzarreko presidenteari

Euskadiko EGABeko presidentek Euskadiko 2020ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zion Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidenteari. Ekitaldian, Lorea Soldevilla Batzordeko idazkari nagusia eta Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikorako Batzordeko presidentea izan ziren.



Uztailak 26

2020ko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena komunikabideen aurrean

Emilia Málaga, Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikorako Batzordeko presidentearekin batera, 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren alderdi nabarmenenak aurkeztu zizkien komunikabideei, prentsurrekoan.



Irailak 6

Enplegu eta Gizarteratze sailburuordearen agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Alfonso Gurpegui Enplegu eta Gizarteratze sailburuordeak Batzordearen Osoko Bilkuran agerraldia egin zuen Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege Aurreproiektua aurkezteko.

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irailak 21

Espainiako EGABen 30. urteurrena ospatzeko jardunaldia

Euskadiko EGABeko presidentea Espainiako EGABen 30. urteurrena ospatzeko jardunaldian izan zen, erakunde horrek Madrilan duen egoitzan.



Irailak
27 eta 28

Sare Transnazional Atlantikoaren Orientazio Batzordea

Sare Transnazional Atlantikoaren Osoko Bilkura Meridan bildu zen, Sarearen egoera eta “Espazio atlantikorako TEN-T delakoaren berrikusketarantz” txostenaren onarpenetik aurrera garatu daitezkeen lankidetzak aztertzeko.



Urriak 1

Gizarte Trantsiziorako eta Agenda 2030erako idazkari nagusiaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Jonan Fernández Gizarte Trantsiziorako eta Agenda 2030erako idazkari nagusiak Agenda 2030en Lehen Eusko Lehentasunen Euskal Programa azaldu zuen Osoko Bilkuran. Programa horrek Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 aldirako Jarduera Plana jasotzen du Garapen Jasangarriaren Helburuen arloan.



Azaroak

15 eta 16

Enpleguaren IV. Kongresua

Euskadiko EGABeko presidenteak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak antolatutako Enpleguaren IV. Kongresuan parte hartu zuen. Kongresua Gasteizen egin zen, eta horren ardatza “Kontratu sozial berri baterako kalitatezko enplegu inklusiboa” izan zen.



Azaroak 10

Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia EGABen Osoko Bilkuran

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasun sailburuak EGABen Osoko Bilkuran parte hartu zuen EAEko 2022ko Aurrekontu Orokorren Proiektua aurkezteko.



JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

IV. KAPITULUA BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

2021KO AURREKONTUA


Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1.668.058,87 €-ko aurrekontua izan zuen 2021ean, eta zenbateko horren 1.478.664,00 € EAEko Aurrekontu Orokorren kargura izan zen, 187.894,87 € aurreko ekitaldietako gerakinen kargura eta 1.500,00 € finantza-sarrereren kargura.

2021ko gastuen eta sarrereren ohiko aurrekontua kapitulu zabal hauetan banakatu zen:

	AURREKONTUA	GAUZATUA	MAILA
GASTUAK	1.668.058,87	1.460.250,76	87,54 %
I. KAPITULUA– Langileen gastuak	756.721,40	697.529,49	92,18 %
II. KAPITULUA– Jardunbide-gastuak	887.208,84	743.798,75	83,84 %
VI. KAPITULUA– Inbertsioak	24.128,63	18.922,52	78,42 %
SARRERAK	1.668.058,87	1.460.250,76	87,54 %
IV. KAPITULUA- Transf. Dirulaguntzak gastu arrunta	1.478.664,00	1.478.664,00	100,00 %
V. KAPITULUA– Ondare sarrerak	1.500,00	4.236,23	282,42 %
Aurreko ekitaldietako	187.894,87	- 22.649,47	

2021ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren datuak behin-behineko itxierari dagozkio, eta urteko ikuskaritzaren emaitzen zain daude.

Gastuen likidazioaren eboluzio historikoaren xehetasuna eta eboluzioa kapituluka:



JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

V. KAPITULUA KOMUNIKAZIOA ETA ARGITALPENAK

KOMUNIKAZIOA



@CESEGAB sare sozialak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sare sozialetan parte hartzen du Twitterren, Facebooken eta LinkedIn-en dituen kontuen bidez, eta bere jarduerekin lotutako hainbat alderdiren berri ematen die jarraitzaileei.

Informazio berekiaz gain, zerrenda irekien bidez biltzen eta aurkezten du intereseko erakunde eta eragile ekonomiko eta sozial ugariak eta Batzordea osatzen duten erakundeek sare sozial horri eskainitako informazioa.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen dituen hirugarrenen informazioak hautatzen eta zabaltzen ditu, erakunde aholku-emaila honen interes-esparruei dagokienez.



Webgunea

Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, haren jarduerari eta argitalpenei buruzko informazioa eskaintzen da.

Horren bidez, EGABek garatzen dituen jarduerari buruzko informazio eguneratua lor daiteke, hala nola irizpenak ematea, txostenak eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea eta abar.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak argitaratutako lan guztiak sarrera librekoak dira, eta PDF formatuan deskarga daitezke, dokumentuen eta lanen atalean.

2021 urtean zehar argitalpen hauek txertatu ditugu gure web-orrian www.cesegab.com PDF eta EBOOK formatuan:

[Jardueren Txostena 2020](#)

[Memoria Sozioekonomikoa 2020](#) eta [Laburpena eta Gogoetak 2020](#)

Irizpenak:

[1/21 Irizpena](#), Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa

[2/21 Irizpena](#), EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxienerako bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretuari buruzkoa

[3/21 Irizpena](#), Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Planari buruzkoa

[4/21 Irizpena](#), kable bidezko garraioaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa

[5/21 Irizpena](#), 2024rako Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Planari buruzkoa

[6/21 Irizpena](#), 2021-2024 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planari buruzkoa

[7/21 Irizpena](#), Euskadiko Mugikortasun Jasangarriko Legearen aurreproiektuari buruzkoa

[8/21 Irizpena](#), Kiroleko dopinaren kontrako legearen bigarren aldatetaren Lege aurreproiektuari buruzkoa

[9/21 Irizpena](#), Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuari buruzko legearen aurreproiektuari buruzkoa

[10/21 Irizpena](#), Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko Dekretu-proiektuari buruzkoa

[11/21 Irizpena](#), Euskadiko Inklusiorako eta diru sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

[12/21 Irizpena](#), Euskadiko Osasun Publikoaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa

[13/21 Irizpena](#), adikzioen eta droga-mendetasunen gaineko arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 legea ez betetzeagatiko zehapenak ordeztzeko sistema arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa

[14/21 Irizpena](#), garapenerako lankidetzeta-programetarako laguntzak arautzen dituen Dekretu-Proiektuari buruzkoa

[15/21 Irizpena](#), Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren Dekretu-proiektuari buruzkoa

JARDUEREN TXOSTENA 2021

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ERANSKINA.
Euskadiko EGABren Araudioa

- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa).
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).
- 2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).
- 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudio onartzen duena (2013-12-11ko EHAA, 232. zk.), Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren 2019ko martxoaren 22ko Erabakiaren bidez zuzendua (2019-04-01eko EHAA, 63. zk.).